



EJERZIZIOAK-IV

Agustin Kardaberaz

Iturria: *Euskal lan guztiak*, Agustin Kardaberaz (faksimilea).
La Gran Enciclopedia Vasca, 1974.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/K/KardaberazEjertzioakIV.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

**SAN IGNAZIOREN EJERZIZIOEN
GAÑEAN,
ORIEN LAU ASTEETAKO
MEDITAZIO LABURRAK,
EDO EJERZIZIOEN LAUGARREN
PARTEA**

JESUSEN
KONPAÑIAKO
AITA AGUSTIN KARDABERAZEK
ANIMEN ONERAKO EMANA.

1765.en urtean.

BEAR BEZALA

Iruñean: Librugille ANTONIO CASTILLA-REN Etxean.



A. S. IGNAZIOREN EJERZIZIOAK

beren lau Asteetan dira modu onetan

Lenengo Asteko Meditazio jakiñak, Novisimoak.

Bigarren Astean Jesu Kristoren Enkarnaziotik aren, da Ama Birjiñaren

Bizitzako Misterioak.

Irugarreanean, Aste Santuko Misterio, ta Pausoak.

Laugarreanean, nola Jesus gloriosoa erresuzitu ta Ama Birjiñari, ta beste askori agertu zan, da Eleiza Santa ordendu, ta zerura igo zan: da bere amorioa Espiritu Santuarekin nola eman zigun.

SARRERA

Gure A. S. Ignaziok Espiritu Santuaren argi, ta Ama Birjiñaren zeruko lezioakin, lau aste, edo illabete osorako bere Ejerzizioak egin zituen. Lenengo Astekoak Euskerazko Ejerzizioen lenengo Libruan eman ziran. Besteak orañ artzen ditut, edo lau asteak eta batera. Baña, nola Santuak guziak, da bakoitza txit labur eman zituen; ala nik ere orañ era batean bezala Ejerzizio guziak laburtxo eman nai ditut.

Gizonaren Azkeniak, edo Novissimoak Aita Pinamontik illaren egunetarako laburtxo eman zituen; da arenak nik ere artzen ditut. Orien ondoren urteko Misterio andiak, ta Jesusen Pasioko Pausoak datoz, Espiritu Santuaren etorzeraraño, ta Jaunaren Amorioarekin guziak koroatzen dira.

Meditazioa, ta orazioa zer dan; ori ondo egiteko bear diran Erreglak, eta modurik egokiena Ejerzizioen asieran eman ziran: orietatik atera bear diran Afekto, ta Frutua ere bai. Novissimoen gañeko Ejenploak bigarren Libru, edo partean daude: irugarten Partean ondo iltzen ikasteko, ta ondo iltzen laguntzeko Ejerzizioak. Orañ Santuaren lau Asteai, jarraituaz, guzietako Meditazioak.

Orazioa luzaro egiteko leku, edo erarik ezpadezu ere, edolarik egunoro iru bider, baña txit soseguz, ta kontuz Pensamentu oiek irakurri, ta egun guztirako biotzean ondo josi bear dituzu: eta eguardean noizean beñ, Jainkoari begiratu, edo zure biotza jaso, ta zure afekto, ta proposituak berriro egizkitzu, eta frutu, edo probetxu andia zugaran seguru ikusiko dezu.



ILLAREN EGUNOROKO MEDITAZIO LABURRAK

LENENGO EGUNEAN SALBAZIOAREN INPORTANTZIA

I. Nere salbazioa da egiteko bat, eta guztia nerea. Nik onetan pentsatzen ezpadet nigatik nork pentsatuko du?

II. Egiteko au añ nerea da, non da dijoakidan, ni naizan guzia, nere anima, ta gorputza. Nik ori segurutzen ezpadet, nigatik nork seguraturuko du?

III. Nerea da egiteko au, ta nere eternidade guztia onetan dijoakit. Nik gogotik artzen ezpadet, nork nigatik artuko du?

Zer egiten det, bada? Zergatik nere salbazioa billatzen ezdet? Nere anima baño geiago amatu bear dedan gauzarik ezdet. Betiko dan nere anima au baño gauza baliosoagorik ezdet. Au galtzen badet, guztia betiko galtzen det.

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

O Trinitade guziz santua! Aita, ta Semea, ta Espiritu Santua, zeñean sinisten, da esperatzen dedan. Zu nere biotz guztitik amatzen zaitut. Zuk nere anima au zuretzat egin zenduen: eta nik Ama Birjiñaren, ta Aingeru santuen eskuetatik betiko ematen dizut,, da beti zu amatzeko. Iru Abe Maria.



BIGARREN EGUNEAN

ILL BEARRA BADAKIZU: NOIZ, TA NOLA ESTAKIZU

I. Sententzia emana dago: ill bear det. Baña orren denbora, edo noiz eztakit. Orañ ordu onetan ill naiteke.

II. Baña non, edo zeñ lekutan eztakit: pekatuan, pekatuko leku, edo bidean ill naiteke.

III. Nola illko naizan eztakit: ondo ala gaizgi: Jaunaren grazian, ala desgrazian. Eta alere pekatuan alegere nago? Pekatura añ erraz, ta laster biurtzen naiz? Eta okasio guztietatik iges egiten eztet? Zer fede da nerea? Nola bizi naiz?

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

Gaurko egunean, nere Jainkoa, nere egiteko guztiak, kontuz, ta bakoitza bere ordu jakiñean egin bear ditut. Nik galtzen dedan ordua, nere azkenekoa izan diteke: ordu ori ondo igarotzean nere salbazioa segura dezaket. Beti ondo bizi, ondo iltzeko. Biotz guztitik iru kontrizioko aktu egin, da propositu ori kunplikuko det.

IRUGARREN EGUNEAN

ILTZEKO ABISOA

I. Baldin derrepente edo supitoan iltzen espanaiz, egun bat etorriko da, zeñean, iltzeko presta nadilla esango zadan.

Orduan konfesatzeko denbora, edo erarik izango det? Baña ai! Gaitzaren indarrez itz bat egiteko egongo ezpanaiz!

Konzienziaren esamen on bat egiteko era, edo modurik izango det?

II. Baña ai! Sustoz, ta bildurrez ozta neregan egongo banaiz!

III. Biotzeko damu ta propositua izango det? Baña ai! Nere anima ainbeste pekatuekin nastua egongo bada! Ai: nik zer egingo det?

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

Jauna: nere bizi guztiko konfesio jeneral oso bat egin nai det: edo len ondo egin badet, azkenekotik onara nere kontu guztiak garbitu, ta bereala ajustatu nai ditut: penitenziako Sakramentuan zurekin pakean nere animak gelditu bear du: Konfesore on bat artu, ta zuk ematen didazun denboraz baliatuko naiz: bizitza berri bat zure grazian egiteko prest nago.

Besoak gora jaso, ta iru Pater noster, Abe Maria, ta Gloria esan.



LAUGARREN EGUNEAN

ERIOTZARAKO PRESTATZEA

I. Eriotza santu bat nik logratzeko, zer egin bear det. Eriotzako orduan nik neronek naiko dedana.

II. Eriotzako orduan, nik naiagatik, bearbada ezin egingo dedana.

III. Eriotzako orduan, salbatuko banaiz, nai ta nai ez, egin bearko dedana. Kontrizioko aktuak, pekatutik alde egiteko proposituak.

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

Gaia ill bear banu bezala, Jauna, gauza guzietan zure bildur santuan biziko naiz: biotz guzitik gaur askotan esango det: Zugan sinisten, da esperatzen det; eta nere pekatu guziaz damu det: eta gauza guzien gañean amaten zaitut. Jauna, S. Jose amorosoa bitarteko dedala eriotza on bat indazu. Zazpi Gloria Patri &c. San Joseri.

BOSTGARREN EGUNEAN

ILTZEN DAGOENAREN ESTADUA

I. Igaro dan bizitzak estutzen du: ainbeste pekatu gogoratu, ta orien penitenziarik egin eztuelako. Ai pensamentu samiña.

II. Ordu presenteak tristetzen du: kondenazioko ainbeste peligro ikusi, eta orietatik libratzeko modurik ez dakus. O erio gogorra!

III. Etorkizunak ikaritzen du: Erernidadea begien aurean dauka; eta eztaki zeñ: edo gloriazkoa, edo penazkoa. Justuak bildur dira: nik pekatariak zer egingo det? Ai zer tranzea!

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

Iltzeko banengo bezala, nere konzienzia begiratuko det Jauna. Pekatuturik arkitzen badet, bereala konfetatuko det. Baldin zure grazian banago, zuri graziak eman, ta Ama Birjiñari eskatuko diot bere Konzepzio garbiagatik bere mantupean betiko artu, ta gorde nazala. Iru Abe Maria, ta lurrari mun iru bider.



SEIGARREN EGUNEAN

ERIOZAKO ORDU, EDO MOMENTUA

I. Puntu artan anima gorputzetik irten, ta sentiduen gusto guzietatik betiko apartatuko da.

II. Punta artan akabatuko dira onrak, akabatuko dira ondasunak, akabatuko dira adiskideak, eta beste gauzak.

III. Punta artan kondena naiteke. Orañ bertan, edo puntu au nere azkenekoa baliz, nizaz zer izango litzake? O puntu, o momento eternidade betikoa zure ondoren dakartzuna.

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

Kontuz, nere Jainkoa, beti ibilli bear det. Orduoro eriotzaz oroitu, ta konzientzia esaminatu bear det: A. S. Ignaziok ala egin oi zuen, ta ala Santu andi egjin zan. Ordu bakoitza aditzean, Ama Birjiñari deituko diot, ta ondo bizitzeko, ta ondo iltzeko grazia eskatuko diot: Bi milla eguneko Induljenziak irabazzeko. Abe Maria orduoro debozio andiaz errezatuko diot.

ZAZPIGARREN EGUNEAN

ERIOZAN ANIMA JUIZIOAN PRESENTATZEN DA

I. Puntu artan Jaunaren Tribunalean arkituko da. Kontu egizu: oia- ren aurrean Jesu Kristo agertzen dala; eta juez aserrearen gisa nere kontra, ta sententzia niri ematera etorri dala.

II. Ezkerretik deabrua txit alegere, ta libru andi bat nere begietan paratzen duela, zeñean nere pekatu guztiak ikusten diran.

III. Eskuietik nere Aingeru goardakoa libru txiki batekin, zeñean nere bizi guztiko obra on gutxi ikusten diran: eta bera triste balego bezala. O zer librua! O zer ispillua! O zer espantua!

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

Oiean sartu, ta kontu egingo det, O Jauna, iltzeko estaduan nagoela, Santo Kristoa, ta eriotzako kandela eskuetan ditudala, ta esango det. Ai, onela ilko naiz! Orduan zer naiko det? Bada orañ ori dagidan. O Jauna! Damu det Zu ofendituz: damu det milla bider nere pekatuaz. Penitentzia, ta bizitza berria. Orduan naiko det: bertatik dagidan. Jesus: Jesus milla bider: Jesus, Maria, ta Jose orañ da beti nigan. Amen.



ZORTZIGARREN EGUNEAN

ANIMAREN JUIZIO PARTIKULARRA

I. Esamen, edo kontu au txit estua, ta latza izango da: pensamentu, itz, ta obra guztiena; eta txit txeakiro edo banaka. Akusatuko naute tentatu ninduten deabruak berak: ejemplo gaistoakin galdu nituen lagunak berak, eta Jainkoak eman zizkidan abiso, ta argiak berak.

II. Jueza guziz justu justua, ta piedade gabekoa egongo da. Beraren begietan pekatuak egin nituen: berak guzia ikusi, ta jakin zuen.

III. Sententzia betikoa, ta erremedio gabekoa izango da. Aitzakia, edo eskusarik an ezta: eskari, epe, edo atzera biurtzerik an ezta: edo betiko bizia zeruan, edo betiko eriotza infernuan. Ai, ta nola bizi naiz?

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

O Nere Juez guziz justua! Nere begietan gaur beti iduki bear zaitut. Nere obra guzietan esango det: obra onen gañean zer sententzia emango zat? Askotan, edo ordua aditzean biotzetik esango det: Maria graziaren, da mierikordiaren Ama: etsai gaistotik libra nazazu, ta eriotzako orduan artu nazazu. Amen. Iru Abe Maria.

BEDERATZIGARREN EGUNEAN

ANIMAREN ESTADU, EDO EGOERA

I. Gloriarako sententzia bada, anima justua birtutez, ta doaiez apañdurik fiesta andian Aingeruak zerura puntu artan eramango dute. Zer poza, ta kontento pategabea izango duen, nork esan dezake?

II. Infernurako sententzia bada, doai, ta birtute guziak kendurik, bereala demonioak deadarka infernura arrastatuko dute. Ango tormentu goriak ikusi, ta zer pena animak artuko du?

III. Suerte, edo sententzia oietatik bat bakoitzak betiko bear du. Ai, ta zeñ izango ote da nerea! O bildur santu, biotzean beti bear dedana!

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

Nere Aita amorosoa, ta orduan Juez justua! Beñ da berriz nere konzienzia begiratu nai det, eta zer sententzia orañdaño merezi izan dedan: eta zer orañ bertan ill bear banu. Jauna, nere pekatu itsusiak asko, ta andiak dira; baña zure piedadea andiagoa da. Biotz guztitik amatzen zaitut. Besoak gora zabaldu, ta iru kontrizioko aktu.



AMARGARREN EGUNEAN GORPUTZ ILLAREN ESTADUA, EDO EGOERA

I. Kontu egizu, ill ezkeru animak bere gorputzari begirutzen diola. Nolakoa dago? Gorputz ill, itsusi, ikaragarri bat: ikusten eztu, mobitzen ezta, sentitzen eztu: eta guztiak utzi, ta aren iges dijoaz.

II. Ill janzia zer da? Edozeñ erropa zatar, edo habitu pobre bat: ta ori ere nork janzi, ozta arkitzen da: begiratu, ta guziak ikaritzen ditu.

III. Nora daramate? Elizara. Sazerdoteak kantatzen, da besteak ondoren. Eleizako ofizioak egin, ta lurpean sartzeko, diranak bakarrik uzten dute an usteldu, ta arrak jango dute: eta orra gorputza erregalatzea zer dan: eta anima tristea orregatik bearbada galdurik infernuan.

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

Joango naiz, Jauna, Eleizara, eta Aldarean Zu adoratu, ta zure grazia eskatuko dizut. Obi baten gañean belaunikatu ta bost bider esango det: «Nere etxe, edo lekua au izango da: ill ezkeru nere gorputz au emen sartuko dute, ta usteldu, ta arrak jango dute. Ai: obe det penitentzia orañ egin, gero betiko bizi dedin.

AMAIKAGARRENEAN NERE BIZITZAKO PROZESOA

I. Nere biziko instante bakoitzean prozesoa au egiten ari da: eta egun bat etorriko da zeñean guzia irakurriko dan. Irakurriko da egin bear ez nuen gaitz guzia, ta orregatik ere nik egin nuena.

II. Irakurriko da egin bear nuen on guzia, ta egin ez nuena.

III. Guziaren betiko sententzia emango zat: baña zer sententzia? Nere obrakin nik orañ prestatzen dedana. Zer naiko det orduan?

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

Ai juez guziz justua! Nere igaroko bizitza galduak ikaritzen nau: bada ainbeste obra on egin nitzakeala, nere nagiaz, ta utziaz, ta besteen esamesakgatik galdu ditut: eta nik egindako, edo besteai eragindako kulpaz nere anima bete det! Baña diranaz, Jauna, damu det: orregatik biotzetik bost kontriziozko akto egingo ditut.



AMABIGARRENEAN

PENITENZIARA ANIMATZEKO ARRAZOI ERAGILLEAK

Pekatu egín da Jainkoa ofenditu bader, penitentzia egín bear det. Ala da egia; baña noiz ori egingo det?

- I. Ill ezkerok ezingo det: bada denbora irago zan, lekurik ezta.
- II. Eriotzan bertan txit gaitz da: bada denbora gutxi, ta estua da.
- III. Beste denborarik, orañoa baizik, nere eskuan eztago: bertatik balia nadin: edo penitentzia egiten biziro bereala asi; edo sekulan egingo eztedala, bildur izan, edo etsi.

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

Ai Jauna! Nere ejemplo, edo obra gaistoakin zenbati obra onak egitekoko bidea, ta gogoa kendu diot? O desdixta! Ez neronek egin, ta ez besteai egiten lagundu, ezpada eragotzi! Zer kalte andiagorik! Gaitz oriek erremediatzeko, penitentzia egín bear det, ejemplo, ta konseju onak guztiai eman bear dieztet. Aurrera guztiok Jainkoa serbi dezagun, Errosario bat Ama Birjiñari debozioz esango diot.

AMAIRUGARRENEAN

AZKEN JUIZIORAKO SEÑALEAK

I. Juizioaren señalear fedeko gauzak dira, zeren Jesu Kristok berak esan zituen. Asko, ta ikaragarriak izango dira: Eguzkia illunduko da: Illargia odol beltzez estaliko da: Izarrak eroriko dira: Itxasoak orroa andiak emango ditu: Lurra ikara gogorrakin idikiko da: aserreak, gerrak, izurriak, pesteak, eriotzak, ta besteak izango dira.

II. Ustez ustegabekoak izango dira Munduan gutxiena uste danean: munduan pekatuak geiena danean: mundukoak erremediatzeko denborarik geiago eztanean.

III. Arrigarriak izango dira. Euria bezala sugarrak etorri, ta erreko dituzte gizonak, abereak, arbolak, palazioak, jardinak, erriak, eta mundu guzia. O zer sualdia! O pekatarien zer ikara.

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

O Pekatuaren kontrako Jaunaren aserre paragabea! Guziaz damu det, ta al dedan gorrotorik andiena biotzean iduki nai det. Zure juizioaren bildur naiz, Jauna. Amabi bider biotz guztitik esango det: Misericordia, Jauna, ni pekatariak, rnisericordia.



AMALAU GARRENEAN

GORPUTZAK PIZTUTZEA, EDO ORIEN RESURREZIOA

I. Aingeruen tronpeta izugarria aditu, ta bereala zure gorputz ori lurpetik bizirik jaikiko da.

II. Orretako zure anima zerutik, edo infernutik etorriko da.

III. Anima, ta gorputza bat egin, eta gorputza ill eziña, edo imortala geldituko da. Baña zer imortalidadez, edo nola? O madarikatuak orduen lurreko gustoak. O bedeikatua betiko emengo penitentzia!

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

Betiko damu ez dakidan, obe det, Jauna orañ penitentzia, ta bizitza on bat gogotik egin, ta nere sentiduen gustoak ukatu, ta gorde kontuz begiak, eta mingaña: onekin lurrean iru gurutze egingo ditut, ta biotzetik kontriziozko iru aktu andi.

AMABOST GARRENEAN

JUEZ JUSTUAREN ETORRERA

I. Ama santisima bere aldean duela, Aingeru, ta Santuakin etorriko da Kristo gloriuz beterik: eta zure Kriadoreak bezala eman dizkitzun grazia, ta doaien kontu estua eskatuko dizu.

II. Aita maiteak bezala zurekiko amorioaren kontu artuko dizu.

III. Redentoreak bezala zugatik eman zuen odolaren kontu artuko dizu.

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

Nere Egille, nere Aita, ta Redentorea zera zu, Jauna. Baña nik gaizki ori ezagutu, ta gaizki pagatu dizut. Lotsaz ta damuz beterik zure Gurutzet, ta lliga preziosoetara biurtzen naiz: kontu ona emateko zure odolezko iturrian nere anima garbitu nai det: gaur zure bost lliga preziosoak bost bider adoratuko ditut.



AMASEIGARRENEAN

KONZIENZIEN AGERIA

I. Egin ditudan pekatu guztiak an agertuko dira: diranak irakurriko dira: diran guziak enzungo dira. O zer lotsa nerea.

II. Zenbat pekatu neronek egiñak, ta besteai eraginak. Zenbat nere barrengo nik ezagutu gabeak! Zer aitzakia emango det?

III. Orien, da beste guzien kontra Jaunak, bere benefizio, ta fabore guziak parako ditu: bere Sakramentu, ta odolaz arpegian emango dit.

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

O zer kontu larria Jauna! O Espiritu dibino konsolagarria! Arren zure argi, damu, ta propositu eragille bat indazu, nere pekatuak ondo ezagutu, ta konfesatzeko. Gaur ordu laurden bat Eleizan, edo Santo Kristo baten aurrean egingo det, nere konzienziari begiratzen, nere konfesioak nola izan diran, nere pekatu ezkutatuena, da biotzeko gogo, gusto, ta afizio gaistoen gañean.

AMAZAZPIGARRENEAN

ESKOJITUEN ARTETIK GAISTOAK ATERATZEA

I. Onak, eta gaistoak era batera orañ bizi dira: eta ill da ere elkarrekin enterratzen dira. Baña juizioan Aingeruak irtengo dira, ta justuen artetik gaistoak ezkerrera botako dituzte.

II. Eskuietara eskojituak, eta bearbada nik emen burlaka arrazoi gabe erabilli nituenak, ditzoso orien artean.

III. Ezkerretara kondenatuak, ta orien artean bearbada aiek ere bai, zeñakin nik pekatuak emen egin nituen.

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

Nere Aingeru Santua: zuri jarraitu nai dizut orañ, eskuietara zurekin orduan egoteko. S. Migel, S. Gabriel, S. Rafael gloriosoak, zuei nere fabore deituko dizutet beti, zuekin beti egon nadin. Bederatzi Abe Maria, Aingeru santuen erreberenzian.



EMEZORTZIGARRENEAN AZKENEKO, TA BETIKO SENTENZIA

I. Gaistoak justuen artetik berezirik, Kristok sententzia emango du. Sententzia sekulan gedeituko, edo errebokatuko eztana.

II. Sententzia beñ eman, da instanteko kunplituko dana,

III. Sententzia beñ eternidade guztirako emango dana. Betiko maldizioa pekatua egin, da penitentzia egin etzuenari. Betiko bendizioa inozenteari, edo pekatuen penitentzia mugonez egin zuenari.

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

Nere Salbadore maitea! Misericordia niaz. Zu zeranagatik, nere pekatuaz damu det. Betoz orañ azoteak, nekeak, ta merezi ditudan kastinguak, geroko barkazioa, ta pakea zurekin izan dezadan. Fede, esperanza, amorio, edo kontrizioko bost aktu biziak.

EMERETZIGARRENEAN BIZITZAZ, EDO DENBORAZ ONDO BALIATZEA

I. Denbora da kaudal bat, baliorik andienekoa; bada bere jainkoa galdu duen pekatariak, instante batean aren grazia arki dezake. Pisa ezazu ondo, zenban obra on, ordu edo egun onetan egin ditzakezun, ta egiten ez dituzun.

II. Pisa ezazu ondo, egun au igaroko dala, ta sekulan biurtuko ezta-la.

III. Pisa ezazu, orien kontu estua eman bear dezula, eta ori pentsatzen eztezula. Eta bizi guztiko instanteaz orobat da. Ai gaizki igarotzen baditut!

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

Gaurko eguna, Jauna, atzenekoa baliz bezala, kontuz igaro bear det. Meza santuan, da beste obra onetan nere intenzioa garbitu, ta zuzenduko det, zu obeto serbitzeko: zure fede onez, Zu adoratzeko, zure amorez guztia egingo det: zure Relijioko aktuetan, zure obediencian, zuri beti gus-toa emateko. Amen. Pater noster, da Abe Maria.



OGEIGARREN EGUNEAN

INFERNUA, EDO KONDENATUEN LEKUA ZER DAN

I. Ze da infernua? Karzela, edo linbo txit illun bat, zeñean kondenatua katea gogorrez beterik beti iltzen bizi dan.

II. Infernua daugar gorizko etxe, labe, edo karobi bizi bat, zeñean kondenatua beti erretzen dan, da beñere akabatzen ez dan.

III. Infernua da tormentu guzien leku bat, zeñak beti iraungo duten.

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

Baldin surtan, edo argi irazaki batean, Abe Maria baten denboran eskua ezin iduki badet, infernuko suak nola eramango ditut? Angoaren aldean pintatua bezala da emengoa. Ez Jauna, emen erre, ta kastiga nazu: bada nere zorakeria itsuaz damu det. Besoak gora zabaldu, ta sei Pater noster, Abe Maria, ta Gloria.

OGEITA BATGARRENEAN

KONDENATUEN ESTADU, EDO EGOERA

I. Infernuan zer egiten da? Ango tormentuetan ezagutzen da, zeñ gaitz andia dan pekatua, zeña emen gutxi ezagutzen zan.

II. An pekatuari dagokion pena padezitzen da, zeñak emen añ pena gutxi ematen digun.

III. An pekatuaren bide emen kendu etzana madarikatzen da. O pekararien suerte ditzagabea, batez ere emen ditzosoak izan baziran!

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

O Jesus nerea! Zuk dakizu ondo nere pekatuen okasioak zeñ, da nola izan diran. Arako joko, ta lagun gaistoak: etxe artan sartzea, ta orrelako beste bide, pauso, ta ibilterak. Bada diranak zure graziarekin sekulako urratu, ta utzi nai ditut. Propositu onekin konsesio andi bat egin nai det. Pekatuan daudenakatik. Ama Birjiñari Errosario bat.



OGEI TA BIGARRENEAN

SALBAZIOAREN ZIERTOEA, EDO BILDURRA

I. Pekatu egin badet, infernua merezitu det: eta Jainkoak barkatu didan ez dakit. Ai zer arantza!

II. Pekarua berriz egiten badet, kondena naiteke: eta okasioan sartzen banaiz, eroriko naizan, zierto eztaikit. Ai zer peligroa!

III. Pekatu egiteko, ta kondenatzeko peligroan nago, baldin bizitza mudatzen ezpadet: eta eriotza baño lenago ori mudatuko dedan zierto eztaikit. O! Puntu artan, Sakramentuak artuta ere, nere kostunbre gaistokak pekatu onetan, edo bestean sartzen banau, nizaz zer izango da?

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

Geiena arrastatzen naberen petatu, edo bizioa da kostunbre au, edo bestea: zuk dakizu, Jauna, eta nere salbazioa onek dauka duda andian. Onen kontra zurekin batean peleatu bear det, ta ori sustraietik atera bear det. Zure Pasio, ta Eriotzagatik, pasio au garaitzeko grazia indazu, pekatuenzat ni ill nadin, da zuretzat bakarrik betiko, bizi nadin. Bost Pater noter, Abe Maria, ta Gloria Jesus onari.

OGEI TA IRUGARRENEAN

ZENBAT KONDENATZEN DIRAN

I. Kondenetzea erraz da, zeren infernuko bidea txit zabala dan, ta andik asko dabiltzan: ala dio Kristok.

II. Salbatzea gaitz da, zeren zeruko atea txit estua dan, eta andik txit gutxi sartzen diran. Ala dio Jesu Kristok.

III. Orañaño munduan geienak kondenatu dira: eta Santuak diotenez, geienak kondenatuko dira. Ai, zer izango ote da nizaz!

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

Peligro izugarri onetan, Jauna, seguru jokatu nai det. Zure bildur santuaz nere biotza betiko josi ezazu. Zure ontasunak salbatuko nau, nik zure borondate gozoa egiten badet: ori nai det. Zure eskua indazu ori beti egiteko Biotzeko bost kontrizioko aktu.



OGEI TA LAUGARRENEAN KONDENATUAREN KONFESIOA

I. Ni salbatzeko Jainkoak ainbeste egin du. Zenbat benefizio, Sakramentu, abiso, ta argi ni zerura gidatzeko. Promesa andiak, eta asko; bildur, ta ikara gogorak. Baña guztiak galdu, ta desegin ditut.

II. Kostu gutxian salba nindekean. Ha! okasio ura ebaki banu! Ha nere proposituak gogotik artu banitu! Erraz salbatuko ninzan.

III. Eta au erraz betiko kondenatu naiz? Eta tormentu oietara, ta betiko? Eta nekusela ondo! Eta Konfesore, ta Predikadoreak esaten zidatela! Ai! Ai! Ai betikoak!

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

Ai nere Jesus ona! Ez arren niri begiratu, ezpada zure odol preziosoari: orrezaz baliatu nai det: nere erremedioa or dago: miseriakordia nizaz. Bost bider esango det: Jauna, Zu ofendituaz damu det: amatzen zaituz gauza guzien gañean: bizitza berria, bizitza berria.

OGEI TA BOSTGARRENEAN BETIKO KONDENAZIOA

I. Kondenazioa zer da? Jainkoa galzea, ta betiko galtzea. O desditxa!

II. Su gar bizietan erretzea, ta betiko erretzea. O suak, o garrak!

III. Frutugabeko damua, ta betiko desesperazioa. O betiko eternidadea!

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

Betiko pena, ta tormentuetatik libratzeagatik, nola, Jauna, animatuko ez naiz zure eskutik lurreko penak artu, ta pozik erematera? Gauza txikietan kontuz nere begiak, mingaña, ta biotza gordeko ditut. Nere bildur naiz. Pekatutik libratzeko iru Pater noster debozioz esango ditut.



OGEI TA SEIGARRENEAN PENITENZIA EZ LUZATZEA

Jainkoa ofenditu det? Bada dekretoa egiña dago: edo infernua, edo penitentzia. Berriz pekatura biurtu naiz: eta geroko esperanzan penitentzia utzi nai det? Baña nork iru gauza seguratuko dizkit?

- I. Penitentzia egiteko gero denbora izango dedala.
- II. Denbora badet ere, penitentzia egiteko gogoia izango dedala.
- III. Penitentzia eginda ere, gero etori, ta kondenatuko ez naizala.

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

Ta zer? Burlazko kontua baliz bezala, salbazioaren egitekoan ibilli bear det? Ta nere anima onela erabilli bear det? Ez ori, Jauna. Nagitasunak utzi, ta aurrera lenago, ta askotan konfesatu bear det. Konfesore on bat artu, ta kontuzako penitentzia egin bear det penitentiak gogotik eskatu, ta esaten didan guztia egin bear det.

OGEI TA ZAZPIGARRENEAN SANTUEN SEKULAKO GLORIA

I. Anima zeruan sartzean zer ikusiko du? Jainkoaren edertasuna, ta gloria. Ta gloria zer da? Nork esan dezake? Bertan, supitoan ditxa guztiak anima betiko artuko dute. Kontentu guztiak betiko.

II. Onra, ta ondasun guztiak Jesusen Konpañian, Ama Birjiña, Aingeru, ta Santuakin batean beti gozatuko ditu. O zer lagun gozoak!

III. Ditxa esan al baño andiago guziak, galtzeko bildur, edo peligro gabe, betiko izango ditu. O ditxa, O zoriona, o gloria bizia!

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

O Nere Jesus maitea! Emengo neke, tentazio, ta peligrøetan, nola animatuko ez naiz, ta biotza pozez beterik zerura jasoko ez det?

O zerua! O ango onrak, ondasunak, ta atsegiñak. Nola nere anima eramaten eztezute betiko? O zeñ itsusia dan lurra, zeruari begiratzen diodanean. Ala zion A. S. Ignaziok. Bederatzi Gloria Patri.



OGEI TA ZORTZIGARRENEAN

ZERURAKO BIDEA

I. Bide bi baizik eztira. Animaren inozentzia, ta grazia, edo penitentzia. Bateo santuko grazia beti gorde det? Baña ai desditxa! Zenbat pekatuekin ori itsusitu, ta galdu det! O zer kalte negargarria!

II. Pekatu oriei ondo dagokien penitentzia egin badet? Baña zer penitentzia! Orren igesi beti ta gauza guzietan ibilli banaiz!

III. Ta ori orrela dala ere, salbatu uste det? Bai. Baña nondik? Bide oriek biok baizik eztago. Batetik edo bestetik joan bear det. Baña ai! Inozentzia galdu det: penitentzia egin nai eztet. Nola bada, edo nondik faliatu uste, edo nai det?

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

Nere Jainkoa! Zerura nere gogoak, eta biotza betiko jaso nai ditut. Ango ditxa guzien esperanza bizitza santu bat egitera animatu nai det. Penitentzia, Jauna, damua, ta bizitza berria. Bide seguru onetatik ibilli, ta Ate onetatik zeruan sartu nai det. Iru kontrizioko aktu Trinitate SSmoari, bera beti amatzeko.

OGEI TA BEDERATZIGARRENEAN

ZERUA IRABAZTEKO PELEA

I. Nere anima salbatzeko Jainkoak gutxi eskatzen dit onetan: peleatzeko bere graziaz armatu ta janzi nadilla, ta beraren legea gorde dezadala. O zer lege santu, justu, garbia, ta suabea.

II. Lege ori gordetzeko, Jainkoak eskurik artu, ta bereak laguntzen dit eta bereak geiena egiten dit. O zer graziaren indarrak! Bere Pasio, eriotza, ta Sakramentuen birtuteak!

III. Nere alegin gutxi ori txit ugari pagatzen dit: emengo neke puska betiko deskansuarekin: emengo tentazioak, eta gerra, betiko, pake gozoarekin; emengo pena laburrak betiko atsedean, da gloriarekin.

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

Biziro ta pozik anima naiteke, Jesus nere Kapitan da Maisua! Aurrean zoaz Zu, zure ejemploaz ni berotzeko. Aurrean zoaz nigatik peleatzeko. Anima nadin bada: zure onra, ta gloria dioa, nik zuri jarraitzean. Zuretzat gloria, ta neretzat probetxua. Ala naizu: izan bedi orduan. Zu adoratzeko, iru bider lurrari muñ, ta iru Pater noster.



OGEI TA AMARGARRENEAN

ETERNIDADEA, EDO BETIRAUNA

I. Nere eternidadeko etxera gizona joango da: ala dio Jainkoak. Beraz zuk eta nik ere ara joan bear degu. Etxe au bakoitzak bere eskuz edo bere obrakin bizitza onetan jasotzen du.

II. Deabruak atsegin, usia labur batekin engaňatzen nau, ta infernuko etxera bota nai nau, eta nik konsentitzen diot. O zer itsua ngoen!

III. Jainkoak neke arin batekin zeruko Etxea jasotzera deitzen dit, eta nik nai eztet. O zorakeria! O Fedearen falta!

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

Gaur, Jauna, eternidade onetan pensatzen belauniko geld, ordu laurden bat egon bear det: eta ori ondo ezin egin badet, kontu aterako det: infernuko tormentuetan beti egotea, nola eramango det? Desengaño au nere penetan beti gogora ekarriko det. Pekaturik ez egiteko nere buruari esango diot: zer izango da betiko infernua? Au amabi bider esan.

OGEI TA AMAIKAGARRENEAN

KONZENZIARI GALDETZEA

I. Nere konzienziari galdetu nai diot, ta esan dizadala: Jainkoak zertako nauen mundu onetan? Nere anima salbatzeko. Au zierto da.

II. Ni salbatzeko zenbat gauza eman dizkit? Ezin kontatu ala benefizio ala naturalezan, nola grazian. Ori ere zierto da.

III. Onekin salbatzeko nik zer egin det? Al dedan gaitz guztia, eta munduan kondenatzeko baizen ezpanengo bezala. O zer desditxa!

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

Ill onetako pekatuen konfesio jenerala egin bear det, Jauna. Zure benefizioak ikusi, ta lotsatu, ta ondatu bear det. Begiratuko det ondo, ill onetan ill bear banu bezala birtuteetan aurreratu naizan, edo bizio, ta pekatuan geiago sartu naizan. Oien damuaz zuri barkazioa eskatuko dizut: ta urrengo illa azkeneko baliz bezala, emendatzeko, ta Zu bakarrik amatzeko propositu sendoagoak artuko ditut.



AMA BIRJIÑAREN MISTERIO, EDO FESTETAKO MEDITAZIO LABURRAK

AMA BIRJIÑAREN KONZEPZIO GARBIA

I. Pensezazu, nola Jainkoaren Ontasunak mundu galdua salbatzeko, bere Seme bakarria bialdu nai izan zuen. Beste bide, edo modu asko, gu irabazteko bazituen ere, beretzat kostosoena artu zuen, bere amorio fin gabea guri erakusteko, ta gure anima, bear bezela estimatzen bide onetatik guri erakasteko.

II. Pensezazu, orretako Gizon, edo Aur egiñik jaio nai izan zuela, ta besteak bezala, lurreean agertzeko, traza eman zuen Espiritu Santuak Ama Birjiñaren Etxe garbi, edo Tenplo ederra egiteko, ta Jainkoaren Semea bere sabelean artzeko: eta Adan, da Ebak eriotza ekarri baziguten, Jesus maiteak, ta Maria bere Amak graziazko bizitza zerutik ekarri zizaguten.

III. Pensezazu, nola Ama Birjiñaren Anima, zeru guziak baño ederragoa, Jainkoak beretzat kriatu, edo ezerezetik egin zuen, da Santa Anaren sabelean sortu zan gorputzean sartu zuen, da lenengo izanaren instante artan bertan bere Amatzat eskojitua bezala, grazia dibinoaz bete, ta doai guziaz apañdu zuen.

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

O Trinitate santisimoa Aita, ta Semea, ta Espiritu Santua, iru Persona, ta Jainko egiazko bat, zeñean sinisten, da esperatzen dedan, ta zeña gauza guztien gañean, nere guztia bezela amatzen dedan. Nori, Jauna, sekulan gogoratuko zitzaion onelako marabilla? Zuk gure beartik ezertako eztezula, ta gu salbatzeagatik Gizon egin bear zenduela. Zure Ontasunak bakarrik ori eragin zizun, ta zure Ama maitearen sabelera erakarri zinduen. Milla grazia, ta alabanza zuri, Jauna miserikordia paregabe onegatik. Eta, Zu, o Birjiña Maria Jainkoaren Ama, Santa Anaren sabelera gure ditxarako ongi etorria zerala. Zure sortze, edo Konzepzio garbiagatik, eta orduan Jaunaren eskutik añ ugari artu ziñituen doai dibinoagatik, arren alkanza zadazu grazia, pekatu guzietatik libra nadin, eta zure Misterio guztien jatorrizko iturri, edo zure festa guzieren asiera au debozio, ta amorio guztiaz orañ, ta beti zelebra dezadan. Amen.

Ama Birjiñaren Konzepzio garbiaren memorian goizoro iru Abe Maria errezatu bear dira eta orañ kontrizioko aktu bat biotzetik beraren onran egizu.



AMA BIRJIÑAREN JAIOTZA, TA IZENA

I. Pensezazu, mundu au pekatuetan ondaturik, ta gau erdiko lo triste pisuan zegoenean Maria Santisima Argi ederraren Ama, Jainkoa mundu guzia alegeratzeko bialdu, ta lurreean agertu zala, edo, Maria aurtxo gozoa jaio zala. Jainkoaren eskuetako obrarik ederren au, edo milagrozkio kriaturik eskojituen au jaio zanean, Aingeru guztiak atsegin andiz bere, ta Jainkoa alabatu zuten, zeren jaiotza onek berri ondo gureztat ekarri zituen.

II. Pensezazu Zeruetako Erregiña au jaio zanean Aingeruak alegeratu baziran, zer poza, ta alegria dibinoa, S. Joakin, da Santa Anak izango zuten, bada beren alaba preziosa, ta joiarik estimatuena begiz zekusten, eta Eguzki Dibinoaren egunsenti, edo Alba argi ederra ikusi, ta zer biotzeko alabanzas Jaunari emango ziozkaten.

III. Pensezazu nola beren Alabari Maria, izen santua eman zioten: eta Mariak grazia guztien Itxasoa esan nai duela: eta aur paregabe au Jainkoaren Ama izateko, ondo gabeko Itxaso, eta bere edertasun, ondasun, doai, ta birtute guzieren diñako ontzi garbi eder egin zuela. Zer fede, debozio, ta amorioaz S. Joakin, da Santa Anak beren Alaba, Jainkoaren Ama izan bear zuena aziko zuten!

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

Aurtxo eder jaio berri, munduaren onragarri, guzieren Erregiña, Birjiña Maria milla ongi etorri zuri, ta milla esker Jaunari: bada goizeko izar eder argi, zeruko bidea guri erakustera, ta Jainkoa bera zerutik lurrera gureztat erakarera bialdu zaitu. Pekatuaz galduak geunden; baña graziazko Itxaso orretan pekatuak ondatu bear dute: orien barkazio osoa, ta erremedio ugaria zure Seme Dibibinoan Jainkoak ematen digu. O! Berari nai dakiola, zure bitartez gu berarengat berriro jaiotzea, ta zuk lagundurik, egiazko penitentzia, ta biziera berri santu bat, zure Mantupean ta amorio-guk egitea.

Birjiña Ama Maria, zure Izen gozo poderosoaz nere neke ta tentazio guzietan baliatuko naiz, eta ordua aditzen dedan guzian, Abe Maria erreztatuko det: eta zure amorez egunoro S. Joakin da Santa Ana zure Guraso maiteai biotzetik deitu, ta eriotza on bat eskatuko diet.

AMA BIRJIÑAREN TENPLOKO PRESENTAZIOA

I. Pensezazu zeruko Aur estimatu, edo Jainkoaren milagrozkio Alaba Maria, S. Joakin, ta Santa Anak, nola irugarren urteratño beren joiarik preziosoena bezala gorde, ta azi zuten: eta zeren Jainkoak emandako, ta graziazko doai eder ori bera Tenploan serbitzeko, konsagratu, ta botoaz agindu zioten, promesa kunplitzera, fede, ta debozio guziaz irurak joan ziran.

II. Pensezazu, Maria Santisima iru urteko Aurra bazan ere, argi dibinoaz beterik, Tenploan betiko Jauna serbitzera biotzeko atsegiñik andienaz joan zala: an eta presentatzeko nola Sazerdoteak lenengo grada edo mallan paratu, ta Erregiñaren aire, edo Majestade plantarekin, amabost gradetan bera bakarrik amorioak anima eder ari bere egoak emanik igo zan.

III. Pensezazu, zer fede, ta nolako espiritu, amorio, ta debozioaz bere biotza, ta zan guzia Aur ederrak Jaunari eman edo konsagratu zion: eta Guraso santuak betiko eman zioten. Aingeruak beren Erregiña ala ikusi, ta miretsirik egongo ziran: eta Trinidad guztia, zeruak baño ederrago zan Sagrario prezioso, ta Tenplo bizi artan ederritzi, ta bere gloria, ta atsegiñik andienarekin Maria SSaren animan jarriko zan.

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

Guztiok degu, Jauna, Presentazio, ta ofrenda misteriozko onetan asko zer miretsi, ta zu alabatzeko, ta amatzeko lezio andiak zer ikasi. Gurasoak beren umeak Jainkoarenak bezela, bera serbitzeko nola ondo azi, ta Jaunari ez ukatu, ezpada biotz osoaz eman bear diozkaten: Seme ta alabak nola bereala Gurasoi sujetatu, ta orietan Jainkoari begiratu bear dien, eta bera beti serbitzeko goiz ofrezitu bear duten: Guztiok nola gure gorputz, ta anima, sentidu, ta alegin guzia, Jaunari Bateo santuan agindua bezala betiko konsagratu, edo eman bear diogun. Lagun zaguzu arren Zuk, o Birjiña Maria, birtute guzieren Tenplo bizia, Misterio gozo onetan zuk emanikako lezio oiek, guk ondo ikasten, eta obero kunplitzen, zurekin gure Jainkoa beti alabatzeko. Amen.

S. Joakin da Santa Anari, beren Alabarekin, iru Pater noster, Abe Maria, ta Gloria.



BIRJIÑAREN S. JOSEREKIKO DESPOSORIOA

I. Pensezazu, Tenploan egondu zan amaika urteetan zer zeruko bizitza Ama Birjiñak egin zuen. Jainkoaren Amagai eder onek bere Birjinidade paregabea an betiko konsagratu zion: da Donzella garbi guzien Erregiña bezala, Kastidadeko Botoa lenena egin zuena, Maria SSma izan zan. Lore zuri garbi eder ori beste birtute guztien ejerzizioan, Espiritu Santuak gobernaturik apañdu zuen: bere umildade paregabea, obediencia, orazioa, karidadea, ta beste birtute guztiak aren Anima ederrean arkitzen ziran.

II. Pensezazu, nola zeruko Margarita preziosa au amalau urteraño Tenplo santuko erretiroan gorderik egondu zan: eta orduan beste Donzellak bezala, Esposo bat artu zezala, Jainkoak ordenatu zuen. Munduan zan santuena, ta guztien artean egokiena, Jainkoak bere Amarenzat eskojitu zuena, ta Gizonik ditzosoena, San Jose glorioso izan zan: eta Zeruetako Erregiña, Ama Birjiña, Jaunaren borondatea egiteagatik, onekin desposatu edo ezkondu zan.

III. Pensezazu, zorioneko Esposo oien bien ditxa, esan al baño andiagoa. Zer Jainkoaren eskutikako doai dibinoak esku garbi santuak elkarri ematean! O! Nork esan, edo pensa al ditzake? Zer zeruko biziera Esposa, ta Esposo, edo Josek, ta Mariak egingo zuten. Birtute guztiak Etxe artan, beren lekuan bezala zeuden eta zeruko leia santuan umildade, amorio, ta pake dibinoa beste obra santuakin an arkitzen ziran. O zeruko Eskontza, ta Ezkonduen ispillua!

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

O Jainko zure obretan miragarria! O! Lurrean zuk eginda ikusi dan Ezkontza, edo Desposoriorik santuena! O lurreko ezkondu guztiak! Emen bai, edo Maria, ta Jose santisimoen bizieran begiratu bear dezutela! Emen zuen arteko fede, amorio, ta pake santua ikasi, ta zuen anima ta biotzetako garbitasunaren lezio, ta erreglak ondo artu, ta obeto gorde bear dituzute. O pare Santu, paregabea! Maria, ta Josef, Joakin da Ana! Egiatzko pakea, ta gure biotzetako garbitasuna zuen eskutik betor gugana.

Familia sagradu Jesus, Maria, ta Josef, Joakin, da Anaren erreberentzia, bost Gloria Patri, ta bost bider lurrari mun egiozu.

AMA BIRJIÑAREN ANUNZIAZIOA, GABRIELEN BERRIONAK, ETA JAINKOAREN ENKARNAZIOA

I. Pensezazu, Jainkoak gu salbatzeko pensamentuak artu, ta berak ondo ziekien bezala, Gizon, edo Aur egin, da jaiotzeko trazak eman zituela: eta Andre guztien artean bedekatuena, donzella garbi Maria SSma autetsi zuela: eta sekulan zerutik lurrera Jainkoak bialdu duen berririk onena, edo mandatu ori Ama Birjiñari ekarteko, Aingeru guztien artean S. Gabriel glorioso artu zuela.

II. Pensezazu, Jainkoak munduan Erregiñak, eta beste Andre andi asko ikusten bazituen ere, ez oriei, baizik Donzellarik umillen, da garbienari Aingeru S. Gabriel Mandatari bialdu ziola. Begira, nola Birjiña Maria orazioan Jainkorekin erretiroan zegoela, S. Gabriklek sartu, ta esan zion: Abe graziaz betea. Esan nai du: Jainkoak gorde zaitzala, Maria graziaz betea: Jauna da zurekin. Berri on ori aditu, ta Birjiña Maria txit umillatu zan.

III. Pensezazu, Jainkoaren Marabillarik dibinoen au enzun, da eklabark umillena bezala, baiezkoa emateko, ta Jainkoaren Ama izateko, nola esan zuen: Ona Jaunaren esklaba, zuk diozun bezala, nigan egin bedi. Eta zori oneko puntu artan, Espiritu Santuaren graziaz Jainkoaren Semea Ama Birjiñaren Sabelean Gizon egin zan: eta au da Jaunaren Misterio guztien sustraia, ta gure erremedio, edo salbazioaren asiera ditzosoa.

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

Zerekin edo nola, Jauna, fin, da ondogabeko miserikordia au pagatuko dizugu! Zure amorez guziok urtu, ta deseginda ere eztago gudan kaudalik. Beste zure benefizio guztiak sustrai onetatik datoz. Zure Ama maiteak bai, bere Baiezko umillarekin Misterio ezkutatu au ezagutu, ta zerutik bere sabelera guretzat erakarri zinduela. Ordu onean, o Birjiña guzia umilla Jainkoaren Ama izan zaiteala: eta Obrarik miragarrien onen bear degun argi, ta estimazioa guri alkanza zaguzu. Gure Ama maite onetan izan zaitez, gure biotzetako umildadeaz, pekatuen barkazioa, ta biziera santu bat zure bitartez arki dezagun. Amen.

Abe Maria ondo errezatzen ikasi ezazu, bada gauza dibinoa da, edo Jainkoak S. Gabrielen aotik, Ama Birjiñari esana. Debozioaz orduoro Abe Maria ezazu, eta pensezazu, nola eriotza on bat beti orretan eskatzen diozun. Ori beti eska zaiozu.



AMA BIRJIÑAREN BISITAZIOA: JAINKOA BERE SABELEAN ARTU, TA SANTA ISABEL BISITATZERA NOLA JOAN ZAN

I. Pensezazu Birjiña SSma Jainkoaren Ama egiñik ikusi zanean, da Santa Isabel, bere lengusuak S. Joan Milagrozk Semea nola sabelean zeukan, Jaunaren borondatea egitegatik, bere Erretiroa utzi, ta Judako erri-
ra, nekezko bide luzean, txit ariñ joan zan, da Zakariasen etxean sartu, ta zeruko Diosala Isabeli egin zion.

II. Pensezazu, zer mirari dibinoak orduan ikusi ziran. Ama Birjiñak itz egin zuen puntuan, S. Joan Amaren sabelean zeruko atsegin ta doaiez beterik saltoka asi zan: eta Amak, S. Gabrieleke asi zuen Diosala, edo Abe Maria akabatu zuen: Jainkoa, ta bere Ama alabatu zituen. Zer Espiritu Santuaren argi ta bendizioak Ama Semeen lenengo sarrera onek ekarri zituen! Alabanzarik dibinoenak. Ama Birjiñak aditu, ta Jainkoari guztiak bera alabatzeko umildade andiaz, bere Kanta dibinoan biurtu ziozkan.

III. Pensezazu, nola Ama Birjiña iru illabeteen bere Lengusua kariño guziaz serbitzen an geratu zan: eta lenengo Diosal, edo itzetan alako Marabillak Jainkoak, eta bere Amak, S. Joan, da bere Amagan egin bazituzten, iru illa bereko denboran zer izango zan? Nork ori esan dezake? O Etxe, ta Etxeko doatsuak! Eta zu komulgatzean, zure biotzeko Etxean Jesus ona bere doai guziakin sartzen ezta? Nola bada Jainko guztiaren bendizioz bete bearrean, añ utsa, ta otza gelditzen zera! O fedearen falta!

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

O Zer zeruko bisita au! O lurrean egiten diranak onela balira! Erau-txarrik, esamesa, edo iñoren bizierako gaizki esanik an etzan. Ama bien artean guzia Jainkoa alabatzea izan zan: umildade, ta amorioaz elkar biak serbitzea izan zan. Zer ikasi badegu: ala ondo itz egiten ¡kas¡ deza-gun: lurreko gezur, ta berri txarrak utzi, ta gure itz guziak Jauna, ta bere Ama alabatzeko izan bitez. Au da guziok ondo bear, edo bearren degun lezioa.

Etxe ditxoso, ta Bisita artan bost Persona santu arkitu ziran: Jesus, ta bere Ama: Joan, da bere Aita, ta Ama: Bostai Abe Maria bina errezatu, Etxe artako bendizioak zure Etxera, ta Etxekoetara betiko etorri ditezten.

AMA BIRJIÑAREN ESPEKTAZIOA, EDO JESUS BERE SABELEKO FRUTU BEDEIKATUA JAIORIK IKUSTEKO DESEOAK

I. Pensezazu, gure Salbadorea beste aurrak bezela bederatzi illabeteen, denboraren zai, jaiotzeko, bere Amaren sabelean gure amarez egon zala eta sabel birjinal ori zeru guztiak baño ederrago bazan ere, eta Jesus atsedeten egoteko egokiena; alere jaio, ta bere burua munduari erakusteko deseo biziakin, ordu bakoitza milla urte iritziko zion, ta len baitlen guretzat jaio naiko zuen.

II. Pensezazu, nola Birjiña Amak txit argiro Jainkoaren Amaren ditxa paregabea ezagutzen zuen, eta Jesus bere semeak mundura etorri, ta agertzeko zeukan gogo dibinoa: Ama santisimak ere bere biotzeko amorio, ta ansiarik bizien, da beroenakin eranzuten, da laguntzen zion, eta munduaren erremedioarako jaiorik bere besoetan adoratzeko, musurik, ta laztanik gozoenak emateko begiz ikusi nai zuen.

III. Pensezazu, Jesus dibinoa guretzar jaiotzeko denbora etorri zanean, S. Jose gloriosoaren biotzean zer igaroko zan. Zer Jainkozko pozaldiak! Jainkoaren Semea aur txiki egiñik bere begiz ikusteko, adoratzeko, ta laztan amoroso asko emateko, zer gogo biziak. Nolako errespeto, ta umildadearekin, Maria, bere Esposa, ta Jainkoaren egiazko Amari begiratuko zion! Nola al zuen guztian pozik, ta amarez serbituko zuen!

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

O Jesus, o Maria, o Josef santisimoak! Jainkoaren etorrera onetan zuen artean zer igaro zan, ta zuen biotzetako sentimendu, ta afekto dibinoak nork esan, edo pensa ditzake? Aingeruak ere lurreko Trinitate adoraragarri ori ikusi, ta jaiotza miragarri onen begira, arriturik, gure esaeran egongo ziran. Zer bada Linboko Guraso santuak, eta batzuek lau milla urtean erorrera ditxoso onen begira zeudenak! Zuk ere bada deseo santu bizi oietan lagundu zaiezu. Gure pekatuen erremedioa, ta Redentorea dator, biotzeko iru kontrizioko aktu egiñaz, ta Jesus, Maria, ta Joseri iru Abe Maria esanaz, zure Biotza Jesus artzeko presta ezazu.



AMA BIRJIÑAREN PURIFIKAZIOA, TA NOLA TENPLOAN BERE SEMEA OFRENDATU, TA EROSI, EDO ERRESKATATU ZUEN

I. Pensezazu, nola Jesus jaio, ta berrogeigarren egunean, Jaunaren Legea betetzeko, Ama Birjiña Semea bere besoetan zuela, Tenplora joan zan: eta zeruak, eta Aingeruak baño garbiago bazegoen ere, Purifikazio-ko, (esan nai du), garbitzeko legea, bear bazuen bezela, osoro kunplitu zuen. O zer atsegiña presente onetan Trinitade santisimoak artuko zuen, eta lege santua ondo gordetzeko zer ejemplo ederra Jesus maiteak, ta bere Amak guri eman ziguten!

II. Pensezazu, zer Pede, umildade, ta amorioarekin Ama Birjiñak Aita Eternoari bere Semea gure pekatuakgatik ofrezituko zion, eta Jesus ona bere Aitari sakrifizio onetan nola emango zitzaion. Orduan Ama Birjiñak usakume pare beregatik, eta bost siklo, edo bost diru bere Semea-gatik eman zituen: eta Tenploan gure Redentorea erosten bazuen bezala, erredimitu, ta beregan artu zuen. O zer negar gozoak egingo zituen!

III. Pensezazu, Gizon andi, ta Andre asko Tenploan orduan egongo zirala. Baña Simeon justuak, ta Ana alargun santak bakarrik Ama Semeak ezagutu zituztela; zeren fede bizi, ta amorio guztiaz Jesus, ta bere Amaren begira zeuden. Agure Santu, ta Ana Profetisak ditzazko enkontru onetan zer zeruko atsegiña beren biotzetan artuko zuten; da Semearen Pasioko tormentuak, ta orduan Amaren biotza igaroko zuen dolorezko ezpata Simeon santuak adierazo zion.

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

O Birjiña Ama, ta birtute guztien egiazko ispillua! Zure umildade au ikustea, ta pekataria baziña bezala, legean zu sujetatzea, zeñ lotsa andiko ejemploa dan guretzat! Guk pekatariak gerala ere, gure soberbia erakusten degu, ta justu, ta onzat guztiak gu idukitzea nai degu. Ama santisimaren ejemplo miragarri onekin, gure pekatuak agintzen duten bezala, umilla gaitan: da orien damu, ta konfesio oso batekin gure animak garbitu, ta Ama Birjiñaren eskuetatik, gure biotzetako ofrenda Jainkoari eman diozagun.

Bost bider umillatu Jaunaren aurrean, da lurrari mun egin ta bost Abe Maria, ta bost Gloria Patri esan.

AMA BIRJIÑAREN ASUNZIOA, ONETAN IRU FESTA, EDO MISTERIO DIRA. BIRJIÑA AMAREN TRANSITOA, EDO ERIOTZATIK BETIKO BIZITZARA IGA- ROTZEA.

BESTEZA ZERURA IGO ZANEKOA: BESTEA KORONAZIOA; EDO ZERUETAKO ERREGIÑA KOROATU IZAN ZANEKOA

I. Pensezazu, Ama Birjiña lurretik zerura igotzeko denbora etorri zanean, nola bere Semeak Aingeru S. Gabriel berri on orrekin bialdu zion, ta Apostolo guziak milagroz Ama Birjiñaren Etxean juntatu zituen. Ama SSmak berak zeruko Mandatuaren, berri eman zien, eta Eleiza ondo gobernatzeko, ta animak salbatzeko bear zituzten argi, lezio, ta bendizio dibinoak. O zer Apostoloen negar gozoak despedida triste, ta alegere onetan izango ziran!

II. Pensezazu, nola Ama Birjiñaren Anima santa amorezko sugar dibinoetan erreko zan, ta Jesus zerutik jatxi, ta onen Biotzean bere espiritua entregatu, ta Aingeruzko kantakin bere glorian saritu zuen. Gorputz santua Apostoloak erreberenzia guziarekin Jesemaniko ortuan gorde zuten irugarren egunean zerurik anima jatxi, ta bere gorputz estimatua doai dibinoa bete, ta gorputz, ta anima bere gloriako Jarleku altura betiko igo zan.

III. Pensezazu, zeruko Erregiña bezala, Jesus Errege bere Semeak eskuieko aldetik bere ondoan paratu zuela: eta Trinitade santisimo guztiak, onra ta gloriarik andienaz koroatu zuela. Aita Eternoak bere Alaba, Semeak bere Ama, ta Espiritu Santuak bere Esposa bakarra bezala. An Erregiña gloriosa, ta gure Ama piadosa gugatik beti erregutzen dago. O zer esperanza gozoa!

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

Trinitade guziz santua! O gure Jainko guztiz poderoso, jakinsu ta amoroso! Zure poderio, jakinde, ta amorio fin gabearekin, kriatura guz-



tien gañean Birjiña guziz preziosa ta maitea onelako Koroarekin apañdu zenduen. O zer biotzeko atsegiña artzen degun, zeren bera gure Ama maitea degun. Alabatua betiro izan zaiteala, Jauna, eta bera zugar betiro glorifikatua izan dedilla, eta beraren birartez gu betiko santifika gaiteala: arekin batean Zu beti zeruan alabatzeko. Amen..

Trinidad SSmoari iru Pater noster, da iru Abe Maria Birjiña Amari, eriotza on bat eskatzen diogula.

SAN JOAKIN, DA SANTA ANAREN EGUNEAN

I. Pensezazu, nola munduko Gizon, da Andre guztien artean Jainkoaren Majestadeak bere Ama Santisimaren Guraso izateko, Joakin da Ana bere eskutik bezala autetsi, edo eskojitu nai izan zituen. O ditxa! O fabore alde guzietatik paregabea! Zer doaiak, zenbat, eta nolako graziak orrerarako batari, ta besteari Jainkoak emango ziezten! Berak bai, ta bestek etziekien, ezkondu oiek biok zeruko onrarik andienara lurrean jaio bear zituela: eta berak bai, ta bestek eztaki, zer birtute dibinoak ditxa orretarako ezkondu oiei, edo Joakin da Anari eman bear ziezten.

II. Pensezazu, zer pake, ta amoriozko biziera santua biak egiten zuten. Beren azienda, ta errentetatik urteoro iru parte egin, ta bata Jaunari bere Tenploan, da Sakrifizioetan, bestea pobresai ematen zien, da irugarrenaz berak onra andian bizi ziran. Onela Jainkoa luzaro serbitu zuten; baña urte askoren buruan Jaunaren bendiziorik, edo umerik etzuten, eta beren azienda baño ere geiago beren birtuteak, nori utzi deseaten zuten, da orazio, ta limosnakin ori Jaunari eskatzen zioten. Tenplo santuan beñ batean biotz guztik ori eskatu, ta Joakin bere Ejerzizio santuak obeto egiteko eremu batera erretiratu zan, da Anak bere ortuan ori bera egin zuen: eta biak boto bat, edo berak ematen zien frutua Jaunari betiko beretzat Tenploan emateko.

III. Pensezazu, bere adiskide maite bien orazioak nola Jaunak aditu zituen, eta Aingeru batek zeruko berri onak ekarri ziesten: munduan sekulan jaio zan Alabarik ditxosoena emango ziela. Zer konsuelo dibinoa ta zer zeruko atsegin paregabea Aingeruzko Mandatu onekin Santu biak artuko zuten? Ta are geiago Santa Ana aurdun ikusi zanean, ta milagrozko bere Alaba Maria Santisima jaio zanean. O ditxa bere parerik eztuena!

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

O Joakin da Ana, Jaunaren bendizio ugariz beteak! O Santu guztien doatsuenak! Mundo guzia ditxa andiz zuei zordun da: bada zuen Alaba Maria Jainkoaren, da gure guztien Ama maitea da. Onelako onra, ta gloria ordu onean goza dezazutela. Zuen orazioakin ori mundura ekarri zeneduten bezala, gure pekatuen barkazio osoa erakarri zaguzute, zuekin zuen Alaba Santisima zeruan beti alabatzeko. Amen.

Fede, Esperanza, ta Amoriozko iru aktu, ta iru Abe Maria.



SAN JOSEF GLORIOSOAREN EGUNEAN

I. Pensezazu, Jainkoak bere Semea mundura bialzeko, ta orren Aita usteko, ta Maria Santisimaren Esposo egiazko izateko, Josef, Santu guzien Prinzipe, bere Semearen, da onen Amaren Jabe egin zuela. Munduko onra, ta kargurik andien onek nolako santidade, birtute, ta doaiak eskatzen zituen, Jainkoak bai, ta bestek nork daki? Gauza ziertoa da, pensa al ditekean gradurik altuen orretan bear zituen grazia guztiak, Jaunak bere eskuan zeuzkanak bezala, neurri ugari, ta miragarrian Josef santuari, bere gloriarako eman ziozkala.

II. Pensezazu, Grazia dibino oriekin, Ama Birjiñaren Eskolan, da onen ejenplo ederren artean zenbat egunoro aurreratuko zan! Zer zeruko argiak, nolako fabore, taugar gozoak Josef artuko zuten! Eta are geiago, Jesus maitea jaiotako zuenean, ta Aurtxo Dibinoak Aitari bezela begiratu, ta bere Biotzeko amorio guztiaz eman ziozkan bendizioakin! O zer mirari ederra!

III. Pensezazu, Santu ditxoso onen kontura, Jainkoak bere Seme bakarra, ta onen Ama Santisima iduki zituela. Etxe, ta Familia dibino artako, Buru, Guraso, ta Gobernari Josef egin zuen. Zer Jainkozko neurri edo erreglan Jesus, Maria, ta Joseran pauso, lan edo bear, ejerzizio santu, ta birtute guztiak iruren Animetan egongo ziran! Aingeruen etxizo miragarri bat; Jainkoaren atseginik gozoena, zeru dibino ori izango zan.

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

O Mirarizko Josef santu guzien onargarria! O gure Bitarteko guzien artean poderosoena! O gure bizitzako, ta are geiago eriotzako anparorik seguruen! Jesus, ta Mariaren Biotzetako estimatuena Zu izandu ziran. Bien amorioa bestek inork baño obeto merezitu, ta logratu zenden. O Santu bizitzan da eriotzan erregalatuena! Zorioneko zure izerdiakin biai jaten eman ziranien, ta biak gorde zinduen. Eriotzan Jesus, ta Maria lagun ziranien, zure anima Santa entregatu ziranien. O Josef: zure deiez gaude! Negarretako ibar, edo leku onetan: zure, kontura beti, eta are geiago eriotzako orduan artu, ta gorde gaitzatu: Jesus, ta Maria zurekin batean ikusi, ta alaba ditzagun. Amen.

Bost bider esazu: Jesus, Maria, ta Josef, S. Joakin da Santa Ana: anpara nazazute beti, ta eriotzako orduan atozte nigana Amen.

JESU KRISTOREN JAIOTZA

I. Pensezazu, nola Salbadoreak munduan jaiotako bear zuenean, Aita Eternoak traza eman zuen bere Semea obediencia, umildade, ta pobrezarik andienean jaiotzeko. Augusto Errege soberbioak agindu zuen, bakoitz bere jatorrizko, edo Guraso Nagusien lekuan asenta zedilla; eta obedienciaz, Ama Birjiña, ta S. Josef, neguaren biotzean, Nazaretko beren Etxetik Belengo errira nekezko bidean jarri ziran: eta beren Aideen artean ostaturik inork eman nai ez, ta aberleku, edo Belengo Portalean sartu ziran. O Familia Dibino, mundu itxuak ezagutu gabe, era onetan desanparatu! Atozte ordu onean nigana: nerea izango da ditxa. Jesus maitagarria atoz nere biotzean jaiotzera.

II. Pensezazu, nola Josef Santuak bere Esposarekin Portaletxo pobre ori ondo garbitu, ta munduko Errege bakarra jaiotzeko maneatu, edo prestatuko zuten: eta Ama Birjiña zeruko kontenplaziorik gozoenean jarri zan, eta bere sabeleko frutu bedeikatu Jesus dibinoa milagroak jaiotako ikusi zuen. O misterio ezkutatu, ta miragarria! Birjiña Amak, belaunikatu, ta bere Jaun andi, orduan Aur txiki gugatik egiña, fede ta amorio guztiaz adoratu zuen, da bere oial pobre, baño garbietan bildu, ta trofatuko zuen, da Jainkoaren, da bere Seme ori, erreberenzia guztiarekin lasto gañean paratuko zuen. O! O! O! zer misterioa au!

III. Pensezazu, Ama Birjiñak, eta Josef maiteak, Jainkoaren seme bakarra, Aingeruen alegria, ta gloria bizia, alako umiltasun, da pobrezan, lasto gañean, abere biren artean, otzez, ta negarrez ikusi, zer pensatu, zer esan, edo zer egingo zuten? Aur txiki artan Jainko andi bakar guztia adoratu zuten: arekin batean negar gozoak emango zituzten, ta Jesusen amorio dibinoak beregan eraman, ta bere amorioan artuko zituen.

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

O Nere Jesus! Zenbar nigatik umillago, txikiago, ta pobreago, anbat neretzat altuago, andiago, ta aberatsago! O zer lezioak zeruko zure Eskola onetan ditudan! Jesus, Maria, ta Josef Santisimoak. Ostaturik inork eman nai ezpadizute, ona nere biotz pobrea, ta borondate ona. Atozte ordu onean onara; Iruren diñako ostaturik garbiena izan nai nuke. Pobre izanagatik ez nazute utziko: ta zuen saria utsa ezta izango, baizen ni ondanez betetzeko diña, zuen graziaz. Amen.

Jesus, Maria, ta Joseran erreberenzian, iru Pater noster, Abe Maria, ta Gloria.



JESUSEN ZIRKUNZISIOA TA IZEN ADORAGARRIA URTEAREN LENENGO EGUNEAN

I. Pensezazu, nola jaio, ta zortzigarren egunean Jesus Aur gozoa zir-kunzidatu zuten: ta beste aur pekatarien gaitza bazeukan bezela, señaie orrekin lege santuari sujetatu zan: eta arrizko kanibeta gogorak Jesusen aragi dibinoa ebaki zuen. O gure pekatuen aserre latza! Bada onelako golpe ikaragarria egin zuen: eta Jainkoaren Seme bakarraren odol prezio-soa, ta dolorezko negar samiñak jaio ta bereala atera zituen!

II. Pensezazu, Jesus, edo Salbadorearen Izen adoragarria Aurrari nola eman zioten; eta bere odol sagraduaren kostuan merezi izan zuen: eta izenik ederren ori Aingeruak zerutik ekarri zuen, zeren Jesus mundu-ko pekatari guztien Salbadore egiazkoa zan, ta ofizio ori egiten egun one-tan asi izandu zan. Zer erreberenzia, ta nolako amorioa Izen dibino oni zor diogu ; bada gure gaitz guzietatik orrek libratu ginduen.

III. Pensezazu, dolorezko Sakrifizio ori egin, da Jesus maitagarria odola zeriola, ta negarrez Ama maiteari biurtu zioten, Ai ta zer onen bio-tzeko naigabea ta negarrak! Zer amorio, ta nolako kariñoaren señaieakin bere Semetxo Dibinoa artu, ta bere ura ixillerasotzeko, bere bular birjina-la emango zion? Eta Sakrifizio onagatik zer eskerrak Jaunari emango ziozkan?

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

Amoriozko Jainko andi, ta Jesus Aur txiki maitea! Misterio, ta ejen-plo au ikusi, ta nola umillatu, ta arrituko ezker? Odolezko Ofrenda one-tan ispillu batean bezela, pekatua zer dan ikusten degu: infernuko gaitz orretatik gu libratze, ta sendatzeagatik, Jesus Mediku dibinoak bere odo-lezko iturria idiki zuen, da gure animako loiak garbitzeko añ ugari gaur eman zuen. Zure animak zenbat balio duen kostu, ta prezio onetan ikusi ezazu; eta aurrera obeto estimatzen ikasi ezazu.

Igaroko urteetako pekatuen barkazioa biotzeko dama guztiaz eska-tzen dizut, nere Jesus ona: eta Urte berri on bat asitzeko proposituarekin biziera berri Santu bat egiteko grazia indazu. Trinitate Santisimoan iru Pater noster, Abe Maria, ta Gloria.

IRU ERREGEN ADORAZIOA: EDO JESUS JAIO BERRIA MUNDUARI NOLA AGERTU ZITZAION.

I. Pensezazu, Jesus jaio, ta bereala gloriatzko Aingeru kantakin berta-ko Arzaiak Jaunari ongi etorria emarera, ta Aurra adoratzera Belengo Por-talera nola joan ziran; ala izar eder argi batek iru Erregeak amairugarren egunean, zeruko Errege Jesus Dibinoa adoratzera ekarri zituela: eta beren Korte, ta Palazioetako erregalo, ta atsegiñak utzitik, fede ta amorio eragi-lle batekin neke andiko biaje au egitera animatu zituela.

II. Pensezazu, izar argi ori beren Gida zutela, beren ustez Jesus arki-tzeko. Jerulalengo kortean nola sartu ziran, ta izar ori ezkutatu zitzaien. Zeruko Erregea an jaio zalako, aren galdez ibilli ziran: eta Erodes, ta erri-koak arritu ziran; da an ez, baizen Belengo erri txikian jaio bear zuela aditu, ta arako bidea artu zuten. Bereala izarra agertu zan, da aren jarraio atsegin andiaz joan ziran, da Belengo Portaletxoaren gañean gelditu, edo jarri zan.

III. Pensezazu, zer zeruko atsegiña Errege ditxosoak artuko zuten, ta Jesus Aurtxo Errege bakarra adoratzeko nola prestatu ziran. An sartu, ta Jainko guztiz andia gorputz txiki artan, Amaren besoetan ikusi zute-nean, fede, ta erreberenzia guztiaz adoratu zuten: beren presente, edo tesoro andiak, urrea, inzensu, ta mirra ofrendatu ziozkatzen. Ama Birjiña munduko Donzellarik garbiena, ta bere Seme Jesus ezagutu zituzten, da bien bendizio ugariz bete, ta beste bidetatik biurtu ziran.

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

O Jesus adoragarri zorionean egun onetan guretzat agertu ziñana! Jaio ziñan ez Jerusalem andian, ezpada Belen txikian, da ill nai izan zen-duen, ez Belenen, ezpada Jerusalem Errian. Onetan zure umildadea erakutsi ziñigun; lurreko gauza andiak utzitik, egiazko pobrezan zu arki-tzeko. Biotz guztitik Erregeakin Portalean adoratzeko zaitugu, berakin zerean alabatzeko.

Urre, inzensu, ta mirra bezala zure memoria, entendimentua, ta borondarea Jaunari betiko emaiotzkatu, ta biotzeko damuaz beraren oñe-tan zure pekatuak ofrenda zarozkatu: beste doaiak baño Jesus maiteak ori naiago du, ta zeruko ondasunak berak emango dizkitzu.

Tenploan nola Jesus presentatu zan. Misterio au Ama Birjiñaren Purifikazioan esan zan, eta Otsaillaren bigarrean zelebratzen da.



JESUS, TA BERE AMA ERODESEN IGESI JOSEF SANTUAK EJIPTORA NOLA ERA- MAN ZITUEN

I. Pensezazu, Jesus egiazko bizitza guri emateto jaio zaneke Erodesek bizia kendu nai izan zion. O mundu itsua! Zure gaitza ezagutu bearran, zure erremedio, ta osasunaren kontra zeñ laster biurtzen zeran! Zeruko Errege Jesus maitea eztator ez Erodesi, ta ez besteri ezer kentzera, baizik zeruko ondasunak, eta bere erreino ta gloria guztioi ematera.

II. Pensezazu, nola Aingeruak Jainkoaren parrez Josef abisatu zuen, Jesus, ta bere Ama artu, ta Ejiptora joan zedilla. Bereala ta ondo ariñ Josef, ta Maria Santisimoak obeditu, ta bidean jarri ziran, da Ejiptora iges egin zuten. Ara joan, da beren Zeruko Joia dibinoa ondo gordetzeagatik, Jaunaren abisoa etorri artean an pozik irurak askoren onerako egon ziran.

III. Pensezazu, nola bitartean Erodesen errabia itsuak, Jesus ederra ilko zuelako, ainbeste ume inozenteri bizia kendu zien. Zer biotzeko pena, ta naigabea Aur inozente orien eriotzak ikusi, ta Jesus maitagarriak artuko zuen, da orobat Ama Birjiñak Josef santuarekin: eta aien Ama tris-teak zer negar, da deadarrak! Aurtxo prezioso oriek Jainkoa betiko alabazera joan ziran.

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

O Pekatuaren ondorengo triste, ta pagu, edo esker gaistoa! Salbadore dibinoa zeruko bizia guri ematera dator; eta pekatari itsuak, Erodesen gisa, berari bizia kendu nai dio. O zer pagua! Ez orrelakorik, nere Jesus maitea. Ill bedi pekatua, ta betiko, eta Zu gure biotzetan beti bizi zaitte, Jauna. Nere bide, pauso, ta asnase guzietan Jesus, Maria, ta Josef nerekin izan direala. Besoak gurutzetu, ta iru kontrizioko aktu, ta iru Pater noster.

EJIPTON EGON, DA NAZARETKO ETXERA BIURTU ZIRAN

I. Pensezazu, Jesus, Maria, ta Josef Jainkoaren borondatea egiten, da berak agindu artean, Ejiptoko jentil, edo jende itsu aien artean, txit ondo, ta kontentu beren pobrezan, Jainkoak nai zuelako, bizi izan ziran urte batzuetan. Zer pake, ta Jainkozko birtuteen ejemploak emango zituzten! Nola Ama Birjiñak, ta Josef maiteak beren esku bedeikatuakin bearra ederki egin, ta bear zuten janaria erabaziko zuten.

II. Pensezazu, nola Aingeruak Josef santua abisatu zuen Jesus dibinoa ill nai zutenak ill zirala: eta Ama Semeak artu, ta bere errira biur zedilla. Santuak bereala obeditu zuen, ta beren Ongilleetatik kariño andiaz despeditu ziran. Ejiptokoak onetan zer pena artuko zuten, alako Joia preziatuak, Jesus, Maria, ta Josek joan nai zutenean! Iru zeruko persona aietatik zer argi, ta bendizio dibinoak Ejiptoar askok orduan artuko zituzten!

III. Pensezazu, irurak beren errioronz alderatu ziran nola Josef santua bildurto zuen, zeren jakin zuen, Erodes ill, ta Arkelao aren Semea Errege egin zala. Baña Jainkoak seguratu zuen, da Nazaretko Ama Birjiñaren Etxera biurtzea agindu zion, da ara txit ondo irurak allegatu ziran.

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

Ongi etorriak zeratela Bidezko Dibinoak, Jesus, Maria, ta Josef. Ongi etorri zeruko Etorkari paregabeak. Ordua zan Nazaretko Etxe ditxosoan zuek atsedeteko. Neke luze, ta portitzen ondoren atsedean aldi on bat gozatzea, gauza justua zan. O lurreko Trinitate eder santua, gure atsedean, da atsegin egiazkoa! Zuen pakezko egoeraz txit atsegin degu. O Josef maitagarria! Zenbat zuri zor dizugun! Bada gure Salbadorea, bere Amarekin, alako neke, ta peligro andien artean añ kontuz, ta ederki guretzat gorde zinduen. Esker onen señalean zureak dira gure biotzak, zuk jaunaren grazian beti gordetzeko. Amen.

Besoak gora jaso, ta biotzetik Kontrizioko iru aktu, ta iru Abe Maria.



JERUSALENEN JESUS GALDU, TA GURASOAK TENPLOAN ARKITU ZUTENeko MISTERIOA

I. Pensezazu, Jesus amabi urtekoa zala, Ama Birjiña, ta Josef maitearekin Jerusalemgo Tenplora, Jauna adoratzera nola joan zan: eta ango debozioa egin, ta Jesus ezkutatu, ta an gelditu zan. Ama Birjiña Andrea-kin bide baterik, ta Josef Gizonakin bestetik, oi zan bezala joan, ta Nazaretko beren Etxera biurtu ziran: eta bakoitzak uste zuen Jesus maitea bestearekin izango zala: baña Etxean arkitu etzuten.

II. Pensezazu, Jesus Aur dibinoaren falta ikusi, ta zer naigabea, ta pena artuko zuten. Ondo ariñ da lasterka Jerusalemgo Errira biurtu ziran: beren aide, ta ezagun guztien artean Jesus maitetsua billatu zuten; baña alperrik. Luto, ta ansiaz bererik aren billa alegin guziaz zebiltzan; zeren alako joia, Jainkoaren Semea, ta beren konsuelo dibinoa galdu, ta iñon ere ezin arkitu zuten. Baña Tenplo santura biurtu, ta an irugarren egunean, Maisu, ta Dotoreen erdian arkitu zuten, egiazko Maisu bakarra bezala jarririk; eta Maisuak aditu, ta oriei galdetzen ziela.

III. Pensezazu, Jesus dibinoa ala ikusi, ta Ama Santisimak, eta Josef maiteak, zer biotzeko atsegin paregabea artuko zuten. Lengo penen neurrian, ta are andiago orduko bien pozaldia izango zan. Ama Birjiña guztien artean sartu zan, da esan zion: Ene Seme maitea, nola au egin diguzu? Orra, zure Aita, ta ni penaz beterik zure billa ibilli gera. Jesus maiteak eranzun zion: Nere Aitaren borondatea egin bear nuela etzenekiten? Eta Jesus biakin Nazaretko beren Etxera biurtu zan.

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

O Nere Jesus mairea! Zu zera nere bidea, egia, ta bizitza. Iru egun aietan non, da nola ibilli ziñan? Zer egin zenduen? Baña zure atsedean lekua, Tenplo santua zan: zure janari, ta erregalao, Aita Eternoari orazioa nigatik egitea zan. Nere pekatuakin nik galdu bazaitut, orien egiazko damu, ta konfesoarekin billatu nai zaitut. Biziera berri bat egiteko, Zu nere bide argia izan zaite, ni zuzen zure ondoren ibiltzeko, ta Zu betiko bizitza, emen, da zeruan arkitzeko. Amen.

Jesus, Maria, ta Josef nerekin izan direala: Au iru bider esan.

JESUSEN BIZITZA EZKUTATUA, EDO AMABI URTETIK OGEI TA AMARRERAKO EGIN ZUEN

I. Pensezazu, Jesus bere Gurasokin Etxera zanetik ogei ta amar urteetaraño zer umildade, ta obediencia miragarrian Semerik onena bezela nola egon zan. Bere egiazko Amari, ta ustezko Aitari guzian sujetatu zan beti. O zer marabilla, ta ejenploa au! O munduko Gurasorik ditxosoenak! Nola, ta kontu andiaz beren Seme Dibinoa azi, ta serbituko zuten! O munduko Gisaseme, edo umeak! Zer Jesus umillaren Gurasoakiko amorio, obediencia, ta birtute guzieren ejenplo, ta lezio ederrak!

II. Pensezazu, Jesus maitagarria urteetan, edo edadean bezala, jakinduria, ta grazias aurreratuz zijoala. Edadean ikusten zan; baña bere jakintasun, ta grazia dibinoetan, zenbat geiago, ta aurrerago zijoan, nork esan, edo pensa al dezake, berak ezpada?

III. Pensezazu, mundu guzia ezerezetik egin zuen Jaun ori bere bazter, edo erretiroan ezkutaturik, ta ixillik egon bazan ere; nola betiko orazio dibinoaz gañera bere Gurasoak serbitzen, da edozeñ gauza umillanetan laguntzea, azi, ta oitu zan; Santuak diotenez, Josef santuari, bere zur-lanetan txit egokiro laguntzen zion. Bear zanean iltzeak jositzean, edo ginbaletaz ola zulatzean, nola Pasioko tormentuak gogorarau, ta bere gorputz dibinoa gugatik agindu, ta ofrezituko zuen. O zer amorioaz!

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

O Birtute guzieren Maisu dibinoa! Urte orietan zure ejerzizioak zertan, da nola ziran, Zuk bakarrik dakizu. Zer zeruko espiritu, ta nolako intenzio dibinoarekin zure obrak beren orduetan egingo zinduen! Zure Ama Santisimak bere esku eder garbiakin, ta bere biotzeko kariño guztia-ekin ematen zizuna nola jango edo edango zenduen? O Jauna, gure obra, ta itz, ta gauza guztiak, Zuk bezala, esaten, da egiten erakuskutsu, Zure antzera Jainkoaren gustoko neurria betetzeko. Amen.

Fede, Esperanza, Karidade, ta umildadeko iru biotzeko aktu.



NOLA JESU KRISTO BATEATUA IZAN ZAN

I. Pensezazu, nola Jesus ogei ta amar urtekoa zala, Ama santisimaren bendizio artu, ta Jordango Ibaiera joan zan. San Joan Bautista jendeak bateatzen zegoen, ta Kristok bere Adiskide orren eskutik bateatu nai izan zuen.

II. Pensezazu: Kristo ala umillaturik ikusi, ta S. Joan arritu zan, da esan zion: Jauna: ez nik Zu, baizik Zuk ni bateatzea bear da. Jaunak eranzun zion: Jainkoaren borondatea egin bear degu: ala konbeni da, ta orrekin Joanek Kristo bataiatu zuen.

III. Pensezazu, Jesus umillaren gañera Espiritu Santua nola jatxi zan, ta Aita Eternoaren deia nola aditu zan: Au da nere Seme maitea, zeñean nere atsegiñik andiena nik dedan.

JESU KRISTO EREMURA JOAN, TA BARAU EGUNAK ATERA, TA TENTATUA IZAN ZAN

I. Pensezazu, Bateo santua artu, ta Jesus eremura joan zala, eta an berrogei egun, ta gabetako barau andia atera zuela.

II. Pensezazu, gero gosetu zala, ta iru bider deabruak tentatu zuela.

I. Esan klon: Jainkoaren Semea bazera, arri oiek ogi egin itzatzu.

II. Tenploaren goienera eraman, da esan zion: Emendik bera zere burua bota ezazu.

III. Esan zion: Ondasun oiek emango dizkitzut, baldin belaunikatu, ta adoratzan banazu.

III. Pensezazu, nola guri peleatzen erakusteko, tentazio oiek, igaro zituen: oriek benzitu ta Aingeruak etorri, ta Jauna serbitu zuten.



JESUS MAISU DIBINOAK APOSTOLOAK DEITU ZITUEN

1. Pensezazu, nola Pedro, ta Andres, Santiago, ta S. Joan, Felipe ta Mateo besteakin beregandu zituen, eta guztiak pobreak.
- II. Pensezazu, Apostoloak pobre umillak baziran ere, zer altura andira jaso zituen, da ori zer suabidade andiarekin.
- III. Pensezazu, zer, da polako doai dibinoak Jaunak eman ziezten, ta Santu guztien gañera Eleizan, bere Erreinoan nola igo zituen.

LENENGO JESU KRISTOREN MILAGROA

- I. Pensezazu, Jesus bere Ama Santisimarekin Eztaietara konbidatua izan zala: eta ara joan, da Ezkontza santifikatu zuela.
- II. Pensezazu, nola ardoa faltatu zan, eta ori erremediatzeko Ama Birjiñak bere Seme Jaunari esan zion: Ardorik ez tute.
- III. Pensezazu, nola ontzi andi batzuek urez betetzea Jaunak agindu zuen, eta ur ori ardo txit eder biurtu zuen, era ontzieratik atera zuten. Lenengo milagro au ikusi, ta guziak Jauna alabatu zuten.

Jesu Kristo emendik aurrera munduarekiko agertu zan. Milagro txit andiak, eta asko egin zituen, eta pekatari andien konbersio miragarriak: Madalena penitente, edo pekatari santa, Samaritana, ta beste asko. Zeruko Erreino, ta arako bere Dotrina predikatu zuen. Apostoloai milagro guziak egiteko esku, edo grazia eman zien, da biñaka bere aurretik predikatzer a bialdu zituen. Bere erretiroan bakarrik, ta bere Apostoloakin batean Ejerzizio santuak, eta orazioa egiten zuen. Apostoloak eskatu, edo galdetu zioten, Orazioa nola egin bear zan, edo ondo egiteko modua? Maisu Dibinoak bezala, nola eskatu bear dan, Pater nosterra esan, da bere zazpi Eskarietan guzoi ederki erakutsi zigun.

Onela Mandamentuak, eta zeruko bidea erakusten, da guztiai onik asko egiten, azkeneko iru urteak, bere Pasio santuko denbora etorri zan artean irago zituen: eta Pauso, edo Misterio Dibino orien Meditazio laburak orañ eman bear ditugu.

Aste santua guk, ta Eleiza Santak Aste nagusia esaten du; zeren Aste onetan gure Salbadoreak bere amorezko, ta dolorezko Misteriorik andienak agertu zituen. Ogei ta amairu urte, ta iru illabete orduan kunplitzen zituen lurrari. Ostegun Santuko Afari, Legeak agintzen zuenean, amoriozko ejemplo ta dotrinarik gozoenak eman zituen: ala Apostolai oñak garbitzean, nola bere Gorputz, ta Odol prezioso, Anima, ta Jainkotasuna Sakramentu Dibinoan guri ematean. Azkenik Pasioko Misterio miragarriak asitzeko, bere kariño guztiko dotrina, edo Sermoi luze bat despedidan egin zien: eta Jesemaniko ortura Orazioa egitera amaika Apostoloakin, gau illun artan, besteetan bezala, joan zan. An etsaiak preso artu zuten, eta amabost ordu baño len Gurutzean iltzeko josi izan zuten.



ASTE SANTUKO PAUSO, EDO MISTERIOAK. ERRAMU EGUNEKO JESU KRISTOREN SARRERA

I. Pensezazu Jesus gure Redentorearen Biotzeko amorio paregabea, ta zer kontentu andiarekin Jerusalemen sartu zan, Aita eternoaren onra, ta gure ona billatzen zuela. Baziendien Jaunak, zeñ laster afrentaz, penaz, ta tormentuz beterik bizia kendu nai zioten; baña alere gu salbatzeagatik guzia nai zuen.

II. Pensezazu, zeñ manso, ta zeñ umill astoko baten gañean Errege guztien Erregea bere triunfo onetan sartu zan: nola Jainkoak ala nai, ta Errikoak alegriaz beterik lasterka bidera Jesus onari irten, da beren soñeko, ta erramuakin bidea apañdu zioten, eta nola beren biotzak eman nai ziozkaten.

III. Pensezazu, zer kanta eder, ta alabanza gozoak Jaunari jendeak ematen ziozkaten, eta nola zioten: Jainkoari gloria zeruetan: eta ongi etorria ta bedeikatua izan dedilla aren izenean datorren Jaun au. Begira ondo, Jesus maiteak zeñ gutxi alabanza oriek estimatzen zituen, obeto ziekienak bezala, zeñ laster utzi ta ukatuko zuten, da eriotzako sententzia nola eman-go zioten.

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

O Egiatzko umildade, ta pobrezaren Maisu Dibinoa! Lurreko anditahun, da ondasunen Jabe bakarra Zu izanik zure triunforik andiñean, astotxo batean, da besterenean Errian sartu ziñan. Onetan zuk erakutsi ziñigun munduko gauza guziak oñ pean idukitzen. O zeruko Maisua! Zure argia, ta grazia betor, zure gisa gauza gutxirekin kontentu izateko lurrean, ondasun guziak zurekin gozatzeko zeruan.

JESU KRISTOREN AZKENEKO AFARIA

I. Pensezazu, nola Jaunak S. Pedro, ta S. Joan afaria prestatzeko aurrera bialdu zituen; eta Jesusen mandatuaz batean. Jaun deboto batek bere Etxeko Salarik ederrena eman zien: an bear zana prestatu, ta Legeko ordu señalatuan Jesus beste Dizipuloakin etorri, ta afaldu zuten, ta graziak Jainkoari eman ziozkaten.

II. Pensezazu, zer deseo, ta biotzeko amorioa Jesus onak, afari au azkenekoa bezala egiteko, erakutsi zuen, da guztiai esan zien. Maiean zegoen arkume erreari nola begiratuko zion, da artan bere burua, Bildots inozente gure amarez añ laster ill, da tormentuetan erre bear zuena ikusi, ta bera zala pensatuko zuen.

III. Pensezazu, nola Jesus maitetsuak bere amorio dibino guztiarekin Aita Eternoari bere Gorputz sagradua Sakrifizio bizian gugatik ofrezitu zion. Zer amorezko, ta dolorezko deseoak aren Biotza alde guzietara estutu, ta afljitutuko zuten! O nork daki ori?

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

O Gizonik ditzosoena, zeñari alako mandatu gozoa Jesus onak bialdu, ta bere Etxan artu zuen? Zer Misterio dibinoak Etxe, edo zeru artan zelebratu ziran orduan! Nola Gizon deboto oni bere borondate ona pagatuko zion? Ta zenbat bider berak mandatu gozo, ta zeruko argiak deitzen dizu zuri, bere egoera, ta atsegiñezko afaria zure biotzean egin nai duela: eta zuk beti itxi diozu! Ai ta zeñ gaizki! Kulpa guztien lotzaz, ta damuz beterik, Jauna, guzien barkazioa eskatzen dizut: indazu grazia, aurrera nere biotza zuretzat bakarrik beti gordetzeko.

Aste Santuko Misterio, ta Pauso bakoitzean iru kontrizioko aktu beti egin bear dituzu, eta frutu andia aterako dezuz.



NOLA JESUS UMILLAK APOSTOLOAI OÑAK GARBITU ZIEZTEN

I. Pensezazu, Arkumearen Afaria, lege santuak agintzen zuen bezala, baso letxugakin, bakuloak eskuan, zutik, ta lasterka egin, da Jesus amoroak Apostoloai beren lekuetan eseri, ta egotea agindu ziela. Bera orduan maneatu zan: leorkai, edo toalla bat gerrian artu zuen, ontzi batean ura prestatu zuen, ta S. Pedrogandik belauniko jarririk amabiai oñak garbitzen asi zan. O mirari arrigarria!

II. Pensezazu, besteai bezala, Judas traidoreari ere oñak nola garbitu ziozkan, ta onen onrari, ta are geiago animari nola begiratu zion. Ondo ziekien, da beñ da berriz esan zien, amabietatik batek salduko zuela, eta aien artean bat deabrua zala. Alere Judasen oñeran Jesus umilla jarri zan, da bere negar gozo, ta samiñak urarekin nasturik, oñak garbitu ziozkan, aren anima loia bazekusan ere.

III. Pensezazu, obra andi onen ondoren bere soñekoa artu, ta Jesus nola eseri zan, da Apostoloai esan zien: Nik zer egin dedan, badakizute. Zuen Maisu, ta Jauna izanik, umildade, ta karidadezko Misterio au nik egin det, zuek elkarri ori bera egiten ikasi dezazuten, da onela egin bear dezute. O amorio paregabea!

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

Badegu, Jauna, badegu guztiok zure ejemplo ta lezio onetan, gure diña zer ikasi. Baña nik eztakit, Jauna, nora jatxi. Zu Judasen oñetan ikusi ezker. Alere nere kulpa guztien erremedio billa zure oñetara nator, al dedan orien gorroto, ta damurik andienarekin. Betor, Jauna orien barkazioa: betor zure grazia, nik Zu, ta zugatik nere projimoa, zuk naizun bezala, beti amatzeko.

NOLA JESUS ONAK SAKRAMENTU DIBINOA EGIN ZUEN

I. Pensezazu, nola Ostegun santuko gau onetan bere azkeneko amorio guztia erakutsi zigun, da Pasioko tormentuetara baño len, bere Gorputz, ta Odol preziosoa Sakramentu adoragarrian afal ostean utzi zigun: eta etsaiak aren odolgiro egiñik, bizia kendu nai zioten denboran, bere bokadurik gozoena, ta erregalorik andiena, sala artan, bere kariño, ta sosegurik andienean guretzat eman zigun.

II. Pensezazu, nola Apostoloak miretsirik begira zeudela, ogia bere eskuetan artu, bere Aitari graziak eman, ta bedeikatu zuen, da esan zien: Au da nere Gorputza. Eta orobat ardoa esaten ziela: Au da nere odola. Ta bere burua lenengo komulgatu, ta gero Apostoloai bere Gorputza, ta Odola Komunio artan eman zien. O mirari ezkutatu beti gurekin, da guretzat daukaguna.

III. Pensezazu, zer fede, ta nolako debozio Apostoloak komulgatzean idukiko zuten, eta zuk nola komulgatu bear dezun ikasi ezazu: bada zugatik, eta zuretzat Sakramentuan geratu zan. Azkenik Sermoi guztiz gozo, luze, ta misterioz beterikako bat egin zien, da oraziora Ortura joateko, bere Amagandik despeditu zan.

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

O Amorio dibinoa, ta Milagrorik andiena! O Jesusen Biotzeko Ondasun guztien Iturri ezin aortuko dana! Zerekin edo nola zure ondasunezko erregalo au pagatuko dizut? Zugana biurtzen naiz, Jaun amoroa; eta nere biotzeko ontzia garbiro prestatu, ta Mai sagradu orretan Zu artuko zaitut, eta al dedan geiena Iturri onetara etorriko naiz, lurreko gauzen egarria kendu, ta zerukoak beti billatu, ta zugar arki ditzadan. Amen.



JESUS AMA SANTISIMAGANDIK DESPEDITU, TA ORTURA JOAN ZAN

I. Pensezazu nolako argi dibino, debozio, ta amorioarekin Ama Birjiña bere Semearen Misterio oietan zegokean. Oriek akabatu, ta Amaren erretiroan sartu zan, da bere Pasio ta Eriotza igarotzera zijoala kontu eman, da despedidan esango zion: Guziaren berri dakizu, nere Ama maitea, ta Aita Eternoaren borondatea da, Ni justiziagatik, ta munduaren erremediorako, tormentu, ta afrenta arrigarriakin Gurutzean illtzea. Oriek laster iragoko dira: eta irugarren egunean bizirik, ta gloriáz janzirik Zu ikustera biurtuko naiz. Ordua da: prisa det; zure lizenzia, ta bendizioa indazu.

II. Pensezazu, nola Ama Semeak laztan dibino batean urtu, ta desegiñik, korde, edo itzgabe bezala geldituko ziran. Zer biotzetako ai, negar, da ansiak an izango ziran! Semerik santuenari Amarik onenak zer esango zion. Pena, ta suspirioen artean esango zuen: Jaunaren borondatea egin bedi nigan. Eta Jesus ona, bere Ama dolozko itxaso bat egiñik utzi, ta Jesemaniko Baratzara joan zan.

III. Pensezazu nola berandu, illunpean, amaika Apostolo tristezez beteakin ara joan, da Orazioa egitea agindu zien: Pedro, Joan, da Diego artu, ta barrenago Jesus sartu zan, da beñ, da berriz orazioa egin, da irurak lotan arkitu, ta kontuz zeudela esan zien: begira, triste dago nere anima, eriotzako zorian bezala. Espiritua prest dago, baña aragia argala. Irugarrenean biurtu zan, ta orazio luzeagoa egin, da Aitaren borondatea nai bazuen ere, bere tormentuak, eta eriotza gogorra añ aldean ikusi, ta agoniako ansiakin, odolezko izerdi andi batek, lurreraño odola zeriola, Jesus onari eman zion, eta Biotz amorosoa konfortatzera Aingeru bat Aita Eternoak bialdu zion.

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

O Aingeruen alegria, ta gloria bizia! Zer dezu, Jauna! Zerk zure Biotza orrela estutu, ta eriotzako puntura ekarri du? Baña zerk, ezpada gure pekatuen erio gustoak? O borrodo odolgiro infernua baño gogorragoak, Jesusen Biotz dibinoa eriotzako tranzeraño ekarri dezuten eralleak! O desdixarik tristeena! Damu det, biotz guztitik nere pekatuaz. Oiek dira zure eralleak: damu det: eta agonia tristean nik laguntzeko. Zuk naienez dezuna, damu au da: nik ere nai det, Jauna: zure borondate santua aurrea beti egin nai det.

JESUS ONA PRESO ARTU, TA ANAS-EN ETXERA ERAMAN ZUTEN

I. Pensezazu, odolezko izerditan Jaun au joan bazan ere, animo andiarekin Apostoloak prestatzera nola biurtu zan. Orduko Judas zori gaistoko Saltzalea bere tratua egin, da Jerusalengo Fariseo, ta Buru jakiñakin, ta kañalla, billau armatu askorekin zetorren bere Maisu Dibinoa preso artzera, ta ori ezagutzeko señale bere laztan falsoa eman zien. Baña bera aurreratu, ta laztan beltza Judasek emanda ere, Jesus ezagutu etzuten.

II. Pensezezu, nola Jaunak galdetu, ta Jesus Nazarenoa nai zutela aditu, ta esan zien: Ni naiz. Jesusen itz bi oiekin, eun da geiago gizon, edo ziranak ortzaz gora illak bezala erori ziran; da sekulan jaikiko etziran. Baña Jaunak lizenzia eman zien; eta bereala billau aiek sokakin lotu zuten. Orduan Jesemaniko ortuan Jesus onak zer tratua eraman zuen, nork jakin edo esan dezake? Deabruz armaturikako jende aiek Jesus beren presa ikusi zutenean gaizkiesaka, deadarka, golpeka, atzaparka, ostikoka, ta oñ pean Jainkoaren Semea, ezin asperturik, nai zuten bezala, erabilli zuten.

III. Pensezazu, azkenean ondo seguratu, ta Jaun Dibinoa Errira arazo, ta deadar andiakin nola eraman zuten, baña lasterka, itotzen bezala, erdi arrastaka. Jendeak iskanbilla artan Jesus preso, ta alako tratuan ikusi zuten. Anas Pontifizearen etxean onela sartu, ta an zeuden Sazerdotek erdian artu zuten. Anas, bere Dizipulo, ta Dotrinaren gañean galdez asi zan: eta errespuesta manso bat Maisu Dibinoak eman ziolako, an zegoen morroi infame batek, lotsarik gabe esan zion: Zer orrela Pontifizeari eranzuten zaio? Ta esan, da egin, da gure pekatuen karga guztia zeraman beso madarikatua jaso, ta Jesus onari bere arpegi dibinlean bofetada ikaragarri bat guzien aurrean eman zion. O Aingeruak! O Zerua! O Lurra! Zer da au? Non zerate?

AFEKTOAK, ETA FRUTUA

O Pazienziaren Maisu Dibinoa! Zer naigabea zure biotzak artuko zuen lotsagarrizko afrenta, ta erida onekin? Ta ainbeste gizon andi begira zeudela! O edertasun egiazkoa, ta Aingeruen gloria! Nongo infernuko artz, edo otso amorratuak zure arpegi dibinoa orrela eritu, ta itsustu du? Baña ai! Nere pekatuak on egin dute! O madarikatuak! Guzien damuz



lotsaturik zure oñetara nator, Jauna: barkazioa, miserikordia, bizitza berria.

Pauso guzietan berezko Afektoak dira, gure biotzeko lastima, ta penarik biziena Jesus maiteari bere Pasioan erakustea, ta gure pekatuen lotsa, gorrotoa, damua, ta biziera santu baten proposituak. Eta au da Jesus onari bere penetan laguntzeko modurik onena.

Frutua: iru aktu kontrizioko biotz guztitik beti egitea: ta ori batzuetan besoak gora zabaldua: besteetan iru bofetada gogotik zere buruari emanda: iru gurutze miñgañaz lurtean egin, edo ondo arrastatuaz: auzpez puska bat egon; limosna bat eman, edo jateko bokadurik onena utzi, ta orrela Konfesoreak emango dizkitzun penitentzia txikiak: eta guziak Pauso bakoitzaren memorian egin.

ANAS-EN ETXETIK KAIFAS-ENERA JESUS ERAMAN ZUTEN

I. Pensezazu zer bulla, deadar, da golpeakin, ta zer lotsa, ta nekearekin, kale aiek barrena Jesus maitea berriro atera zuten, da ministro billau aien tratu gaistoaz tiraka, Kaifas Pontifizearen Etxera eraman zuten. Testigu, ta testimonio falso asko an aditu, ta Salbadorea isilik zegoen. Baña Kaifas deabruzko enbidiaz errerik galdez asi zan, da esan zion: Ea Jainkoaren Semea zan? Eta Jesus onak: Ala zala, ta baietz, garbiro eranzun, ta Kaifas madarikuak beste an zeudenakin bereala eriotzako sententzia eman zioten.

II. Pensezazu, nola arrabia infernukoz beterik, ziranak jaiki, ta gaizki esaka, ta golpeka Jesus umillaren kontra asi ziran: ta beren erara ase, edo aspertu ziranean, berandu zalako, Jesus ondo lotu, ta beeko gela illun loi itsusi batean seguratu, ta Sazerdoteok deskansuan lo egitera joan ziran. O nere Jesus maitagarria! Zer gau tristea, ta zer tratu pisua! Zure etsai amorratuak beren oi erregalatueta, da Zu Jaun Dibinoa, deabruzko jende billau aien atzaparretan!

S. PEDROREN UKOA, EDO NOLA JESUS UKATU ZUEN

III. Pensezazu, gau triste artako tratu gaistoaz gañera, nola Pedrok iru Bider Jesus bere Maisu dibinoa añ erraz ukatu zuen. Zer biotzeko pena samia tranze onetan artuko zuen? Bere etsaien artean zegoen: eta Pedro bere adiskide guzien buru, ta nagusiak añ laster ukatu zuen. Jakin naiez Pedro Etxe, edo jende galdu aien artean sartu zan: da berotzen su aurrean, ta Jesusen etsaien ondoan jarri zan: da pekatu bidean, edo peli-groan sartzea orra zer dan. Eta Salbadoreak tentazioen kontra armatu bazuen ere, eta gau artan zer igaroko zan añ klaro esan bazion ere; Kristok esan zion bezala, Pedrok egin zuen: iru bider Jesus ukatu; eta ori ez eriotzaren, da gizonen bildurrez, baizik neskatz atezai zatar baten esan-gatik, eta juramentu, ta maldizio ikaragarriakin.

Ah Pedro, Pedro! Zure au artako balentia non da? Zure promesak, eta ausardia azkenik onetara dira? Zure Maisua ezagutu, konfesatu, ta



lenago esan etziñion: Zu zera Kristo Jainko egiazkoren Semea? Gau artan berau esan etziñion: Zurekin ill bear badet ere ukatuko etzaitut. Nola bada orren laster, da iru bider ukatu dezu? Baña ah gure argaltasun itsua! Okasioak erakusten du bakoitza nor edo zer dan. Alere Maisu Dibinoak Pedrori begiratu zion: onek bere pekatu itsusia ezagutu zuen: da negarrezko penitentzia beti egitera, etxe artatik iges joan zan. Eta nora? Nora ezpada Ama Birjiña pekatarien Ama maiteagana. Onegana guk ere biurtu bear degu, ta Pedroren konbersioak bezala, gureak ere izan bear du.

GAU ARTAKO JAUNAREN NEKEAK, ETA GOIZEKO JUNTA

I. Pensezazu, Jesus onaren Biotza erarik tristeenean, ta txit esto gau artan egon zala: eta munduak ikusi duen gaurik illunen izugarriena au izan zan. Bere Ama zekuzan bakarra: ta bera linbo artan bakarrik eta loturik: Apostoloak igesi: batak edo Judasek saldu, Pedrok ukatu; ta guztiak infernuko etsaien artean utzi zuten. Ai nere Jesus, desanparatu guzien anparoa, ta triste guzien konsueloa! Zu onen bakarrik utzia! Zure Biotz, ta Persona Dibinoan gau pisu onetan zer igaro zenduen, Zuk bai ta bestek jakingo eztu, azken juizioan agertu arteraño.

II. Pensezazu, nola etxe artako jende billau, mutill basorki pikaro likitsak Preso dibino Jesus beren kontura artu, ta aren kostuan, bulla, ta farra, burla, ta algara, iseka, ta jolasakin, gau ori irago zuten. Deabruak, ta aren mendeko jendalla infameak bai, ta bestek ezin asma zitzakean, gure Jaun umillak orduan ikusi zituen gauzak. O munduaren pagua! O munduko gaurik isuen!

III. Pensezazu Jainkoaren Majestade guztia bazter infame artan, ala loturik, añ isilla, ta añ umilla, beren erara ikusi zutenean, nola deadarka, ta golpeka ekin zioten. Batak illeetatik, besteak bizarretik tiratzen zioten: batak belarrondokoa, besteak masallekoa, edo musuetakoa: batak ukabilka, besteak ostikoka: batak arpegi dibinoan txistu itsusiak, besteak samotu, edo begiak tapatu, eta nor eman, edo eraso zion, asma zezala. Batak emendik, besteak andik, ta guziak alde guzietatik irri, farra, eskarnio, ta algara egiten ziotela. O nere Jesus biotzekoa! Zer tratu, zer gau, zer modu da au?

Ejemplo onetan ikasi dezagun, gure anima guk an gutxi estimatzen deguna, Jesus maiteak zenbat estimatzen duen; da kure erremedio, edo salbazioa zeñ garesti kosta zitzaion. Onela, edo Jaunak berak dakien bezala gau triste ori irago zuen. Sazerdoteak zarrak, edo agureak baziran ere txit goiz, da arin, Jesus illik ikusteagatik, jaiki ziran, da aren Majestadea lotutik, ta lengo tratu gaistoakin, kaleak barrena, beren Juntara eraman zuten.



NOLA JESUS KONDENATU, TA PILATOSI ERAMAN ZIOTEN

I. Pensezazu, Kaifasek, ta bere lagun infameak goiz ura ikustea asko deseatzten bazuten ere, gure Jesus onak, gugatik Padezitzeko, geiago deseatzten zuela. Alegiñaz goiz juntatu ziran, zeren beren gorrotoak erretzen zituen: ta Salbadorea bere linbotik etxura triste artatik eraman, da onen errespuesta aditu, ta guztiak bereala eriotzara kondenatu zuten: eta lasterka, ta itotzen Pilatori eraman zioten.

II. Pensezazu, nola Sazerdoteak Jaunari bizia kentzeko sententzia eskatu zioten Presidenteari; baña onek Salbadorea esaminatu, ta inozentea, edo kulpa gabea zegoela, esan zien. Orduan Juduak beren gezur, da deadarrekin eriotza berriz eskatu zuten; zeren Galileatik asi, ta Judea guttia alboratzen zuen.

III. Pensezazu, Pilatos jentilak Jesus Galileoa zala aditu, ta Erodes Erregearen mendekoa, oni nola bialdu zion: zeren Jaunaren arrazoiak aditu, ta kulparik etzuela ezagutu zuen. Orduan Juduak Jesus mansoa arazo andian Erodesi presentatu zioten. Onek atsegin artu zuen, eta Jaunari gauza asko galdetu ziozkan. Nai zukean jolas egin, ta jostatzeko milagroen bat bere begiz ikusi. Baña Salbadoreak itzik atera etzuen, da zoroztat Erodes eroak iduki zuen.

O nere Jesus, egiazko Jakintasuna! Pilatos jentilari añ osoro, ta ondo eranzun ziñion, zeren egia, ta justizia billatzen zuen; eta Erodesen aurrean mututurik edo añ isillik egon ziñan: zeren au Judua, ta Jerusalemgo Errege bazan ere; baña txit soberbioa, ta desonestoa zan: eta onek zure Adiskide, ta Mandatari S. Joan Batistari, zeren egia predikatzen zion, neskatzero danzari, ta Andre desonesta bategatik, burua ebaki, edo bizia kendu zion. Au da munduaren saria. Indazu arren, Jauna zure grazia, zure egia beti billatzeko, ta bear bezala itz egiteko. Amen.

NOLA BERRIZ JESUS PILATOSEGANA BIURTU ZUTEN

I. Pensezazu, nola Erodes infameak, eta bere Korteko Jaunak Jainkoaren Semea, simple edo zorotzat iduki, ta burlaka erabilli zuten, añ umill, ta isill ikusi zutelako: eta zoroen burlazko soñeko zuri bat janzi, ta Pilatosi berriro bialdu zioten. Onela gure Errege Dibinoa, Juduen, da Jentilen artean, Tribunal batetik bestera, zoro, edo infame bat bazan bezala, lotsaz ta penaz erabilli zuten.

II. Pensezazu, Pilatosek berriro Salbadorea esaminatu, ta guzia Juduen ezin ikusia, ta gorroto bizia zala, ezagutu, ta nola arpegian Sazerdoteai eman zien, Erodesek kondenatu etzuela, eta berak ere Jesusegan kulparik arkitzen etzuela. Baña Judu itsuak arrabiaz ta zerurañoko deadarrekin eriotza eskatzen zioten.



NOLA JESUS MAITEA, BARRABASEKIN BAT EGIN EDO KONPARATU TA ILTZE- RA KONDENATU ZUTEN

Pensezazu munduan sekulan ikusi dan konparazio edo igoadaderik arrigarriena. Jesus onaren, da Barrabas gaistoaren artean da erri guztiaren aurrean, nola Pilatosek egin zuen. Jesus inozentea libratzeagatik esan zien: Bietatik bata libratu nai det. Jesus, ala Barrabas nai zute? Jesus nere: zer enzungo ote degu? Baña esker gaistoko an zegoen jendalla itsuak, lotsagabe deadarrez, Barrabas libre emateko, ta bestea (izentatu ere gabe) gurutzean josi, ta iltzeko eskatu zuten. O erri, ta erriko zori gaistokoak! Jesusen izen dibinoa ezin enzun, edo esan dezute! Jaun andi au zerutik zuekgatik jatxi, zuen odolekoa egin, zuen artean jaio, zuek bere Pueblo-tzat eskojitu, ta guzien gañean obratu, ainbeste milagro zuen fabore egin, ta geroenean pagu au ematen diozute?

O Jesusen Jainkozko umildade, ta pazienza! Pilatos jentil itsuak itsuski egin zuen, Zu Barrabasekin bat egitean. Baña itsusiago da, Zu Jesus ona, Santu guzien Santua, Barrabas baño ere gutxiago estimatzea? Ari bizia, ta zuri eriotza ematea? Ai, ta zenbat Kristau gaistok ezerezegatik egunoro edozeñ pekatu egitean, diote: Kristo, Barrabas baño gutxiago estimatzen dutela? Barrabas bizi dedilla, ta Kristo ill dedilla! O! Jesus Jainkoaren Semea, ta guzien Ongillea da: ta Barrabas lapur infame, gaizkille, ta errallea da! Ez nere Jainko egiazko, ta Salbadorea: bizi zaitte Zu ordu onean, da sekula guzietan, ta sekulako ill bedi pekatua. Nere pekatu, ta zure ofensa guziaz damu det, Jauna, ta sekulako, zure graziarekin, propo-situ firme bat artzen det, zu bakarrik estimatzeko, ta bai amatzeko.

PILATOSEK AZOTEEN SENTENZIA JESUS ONARI EMAN ZION

I. Pensezazu, Barrabas libratu, Jesus kondenatu, ta nola Juduak Pilatos estutu zuten. Onek Jesus libratzeko, lengo ta lotsa andiko bidea baliatu ez, ta lotsa, ta doloze andiagoko azoteen bidea artu zuen: da Jesus inozentea azotatzea agindu zuen. Bereala borrero infame gogorrek Salbado-reari soñekoak atzaparka kendu ziozkaten arri bati lotu, ta seguratu zuten. O zer lotsa gorrian Jainkoaren Semea ikusi zan,

II. Pensezazu, nola gure pekatuak merezi zituzten azoteak, gugatik, ta pozik artzeko, bere biotzeko amorio guztiarekin Jesus onak Aita Eternoari bere Gorputz birjinala ofrezitu zion. Begira, nola ainbeste borrero indarsu bata bestearen ondoren, deadarka, ta gorrotoz beterik, ainbeste milla azote aren gañean deskargatzen asi ziran: da Gorputz santua puska-tu, ta urratu zuten, alde guzitik odola zeriola.

III. Pensezazu, borreroak aspertu ziranean, nola Gorputz santua askatu zuten, ta illa bezala odol preziosoaren gañean eroriko zan. O Aingeruak non zerate? Zuen Errege Dibino, ezerezetik zuek guztiok egin zinduztena, odolez ustu, edo desegin, da afrenta onetan ikusi, ta geldirik edo loturik zaute? Senakerib Erregeak Jaunaren kontra zeren itz egin zuen; onen Ejerzitian, da gau batean, eun da larogi ta bost milla gizon Aingeru batek ill zituen: da orañ arritutik bezela begira zaute? Bai, nere Jesus maitetsua! Besoak lotu edo gurutzeturik bezala Aingeru guziak Zu adoratzan daude: Zenbat eta azotez, afrentaz, ta lotsaz beteago, anbat guretzat adoragarriago zera.

BURLAZKO SOÑEKO, ARANZAZKO KOROA, TA ECCE HOMO

I. Pensezazu, nola burlazko soñeko gorri zatar bat Errege Dibinoari janzi zioten, da Errege baliz bezala, añ umill, da isill eseri, ta zeukatela, jende kanallak aranza gogorrezko Koroa bat buru sagraduan josi zioten da Erregeren Zetroaren gisa, kañabera bat eskuan eman zioten, burutik arpegi Dibinoan bera odola zeriola.

II. Pensezazu, nola batzuek batetik, besteak bestetik jolasean farra, ta algara egin, da eskarnioz buru sagradua kañaberaz eritu, ta esaten zio-



ten. Agur Errege Jauna. Zure Erreinoa non da? Errege izan naia ondo kosta zatzu. Zure Erreinoa zure burua beñ utsa da.

III. Pensezazu, Jaunaren kostura aspertu ziranean, nola Pilatosek Jesus maitea berekin artu zuen, da ori ikusi ta jende madarikatua lastimatu zala, balkoietik atera zuen, ta guziaz esan zien: Ecce Homo. Begira oni: begira gizonaren antzik eztuen oni. Ona Gizona; ta ona zuei gusto emateagatik nola geratu dan, Baña aiek deadarrez zioten: ken ortik, ken, ken begietatik: kurutzifika bedi. Ondo egiña dago: aurrera, ta kruzifika bedi. Juezak orduan: ta zer? Zuen Erregea kruzifikatuko det? Bai, bai, ori eztegu nai: ill bedi. Begira, esan zien, eriotza au, onen odola zuen gañera etorriko da. Bai, zioten, betor. Orduan juez argalak, eriotzako sententzia gure Jesus onari eman zion.

SENTENZIA EMAN, DA JESUS BERE GURUTZEAREKIN KALBARIORA JOAN ZAN, DA GURUTZEAN JOSI ZUTEN

I. Pensezazu, ango jendearen arazo, deadarrak, eta iskanbilla: Jesus ona andi manso bat bezala, infernuko otso odolgiro aien atzaparretan zegoen: eta zori oneko Gurutzea ikusi zuenean, berriro Biotz guztitik Aita Eternoari bere bizitza, ta eriorza ofrezitu ziozkan: eta gure pekatuen karga guzia bere gañean zuela, Kalbarioko bidea artu zuen. Nora zoaz, Jesus nere biotzekoa, nora zoaz? Zugatik Gurutze onetan josirik iltzera noa, dio Jaunak. O amoriozko eriotza!

II. Pensezazu, nola Gurutze, pisuaren karga, ta bere argaltasunarekin Jauna iru bider bide onetan erori zan lurrera: nola Ama santisima bidera irten zitzaion: penaz josirik elkarri begiratu zioten: da Andre piadosa negarrez zerraiozkanai zer zeruko dotrina, ta lezioa eman zien.

III. Pensezazu, Simon Zirineok lagunduaz, nekez, da doloz Kalbariora nola igo zan. Judu eralle, Jainkoaren Semea ill nai zutenak, guztia presaka, ta itotzen bezala, prestatu zuten, ta arrabia amorratuarekin Jaun dibinoa iltze gogorraz Gurutzean josi zuten: buru sagradutik, beso, ta oñetatik gure salbazioko odola zeriola, iskanbilla andiarekin lotsaz, ta tormentuz beterik Jesus maitea gora igo zuten, ta an iltzan.



JESUS MAISU DIBINOAREN ZAZPI ITZAK

Gurutzean josirik, ta esan al baño pena, ta tormentu andiagoakin bazegoen ere Katedra, edo leku altu artatik zeruko dotrina guri erakusteko, Jesu Kristo gure Jaunak Zazpi itz misterioz beteak esan zituen.

Lenengo itza Redentore maitearen ofizioa egiteko, bere persegido-reenzat barkazioa Aita Eternoari ezkatzea, izan zan: Nere Aita: barka-zaiezu, bada zer egiten duten ezta kite.

Bigarrena izan zan lapur onari Salbazioa seguratzea. Onek esan zion: Jauna, zure Erreinora zoazenean, nizaz akorda zaite. Eta zeruko Erregeak Gurutzetik eranzun zion: Seguru zaude: gaur Paradisuan nerekin egongo zera. O Jesusen Biotzeko amorio irazakia! O zer bitarteko segurua! O lapurraren ditxa! O zer gloria bizia!

Irugarren itza zan bere Ama maitea S. Joani agintzea: eta au bere Amari ematea. Ala S. Joaneke beretzat, eta bere kontura artu zuen Amatzat: eta Amarik onenak S. Joan, da gu argan bere seme, edo umetzat artu ginduen. O Jesus Aitarik onena! O pekatarien Ama gozoa!

Laugarren itza bere Aita Eternoari egin zion: Nere Jainkoa, nere Jainkoa! Zergatik onela desanparatu nazu? Au pena ta tormentuetan esan zuen, da iltzeko zorian zegoela. O nere Jesus! Ta zer tristeza, ta naigabeak gugatik onela zure Biotza estutu zuten!

Bostgarrena. Gure Salbadorea odolez guzia ustu, ta leortu zanean, esan zuen: Egarririk nago. Jainkoaren borondatea zan bere Semeari beazuna ta binagrea ematea. Orregatik esan zuen, da eman zioten. Gugatik geiago padezitzeko egarririk zuen, da gure animak salbatzeko deseoa. O amoriozko zure animaren egarririk bizia.

Seigarrena: ikusi zuenean, bere Aitaren Legea, ta borondate guzia osoro bete, ta kunplitu zuela, esan zuen: Akabatu da guztia. Munduaren erremedioa egin da. Pekararien salbaziorako bear dan guzia egin det. O nere Salbadore maitea! O amorio paregabea.

Zazpigarren itza izan zan, Aita Eternoari bere Espiritua enkomendatzea: ala atzeneko asnaseetan Seme maiteak esan zion:

Nere Aita zure eskuetan nere Espiritua entregatzen dizut. Itz au esan, da burua makurtu, ta iltzan. O Jesus ona, ta egiazko gure bizitza! Munduarenzat betiko ill, da zuretzat bakarrik bizi nai det.

NOLA GURUTZETIK JATXI, TA OBI BERRIAN SARTU ZUTEN

I. Pensezazu, Jesus bere Seme Dibinoa illik ikusi, ta zer naigabeak Birjiña Ama artuko zuten. Nola Josef santua ausardiarekin Pilatogana joan, da Gorputz santua enterratzeko eskatu zion. Nikodemus justua etorri zan, da biak Kalbariora igo ziran. Marabilla andiak an ikusi ziran, da Jesus ill ezker, Jainkoaren Semetzat ezagutu zuten.

II. Pensezazu, Ama Birjiñaren bendizioa Gizon santu biak artu, ta Gorputza al zuten debozio guziarekin desjosi, jatxi, ta Birjiña Amaren besoetan utzi zutela: onen orduko tormentu, pena, ta dolozko naigabeak, eta ai tristeak. O biotzak erdiratzeko pensamentua!

III. Pensezazu, nola Ama Birjiñaren beso laztanetarik nekez Gorputz santua artu, ta guziak amorez, da doloz kurtutzen zirala, Mendi santu artan, izara garbi eder batean, ta obi berrian sartu zuten. O! sartu gaitean gu ere gure Redentore maitearekin. Pekatuarenzat egiaz ill gaitean, Jesu Kristorekin erresuzitatu, ta betiko zeruan bizi gaitean. Amen.

Gure pekatuen damuz josirik, kontrizioko iru aktu andi egin, da obi artan, da Jesus maitearen onetan bazeunde bezala, iru bider lurrari mun egin, gore biotzak berean beri gorde ditzan, Seme dibinoari, bere Ama Santisimaren eskuetatik emango diozkagu.



NOLA JESUS LINBORA JATXI, TA ERRESUZITATU ZAN

I. Pensezazu, erioa bere eriotzarekin Salbadorek benzitu, ta aren Anima santa Linboko Guraso justuak pena artatik atera, ta glorian bete- tzer a nola jatxi zan: ta emendik Kristoren Gurutze, ta Pasioko pelea guzien bitoriak asi ziran. Lurpeko leku illun ura bere sarreran glori azko zeru bat egin zuen.

II. Pensezazu, linboan ainbeste urtean zeuden Animak gloria bizi artan ikusi ziranean, zer alabanzak Jainkoari kantatuko ziozkaten, ta zer graziak Jesus onari emango ziozkaten, zeren ainbeste tormentu, ta bere amorezko eriotzarekin, edo biziaren kostuan, presondegi triste artatik atera, ta bere glori az bete zituen.

III. Pensezazu, Errege bitoriosoa au katibu oriekin, da Aingeruak alabatzen zutela, Gorputz obian zegoena ikustera, ta piztutzero, nola joan zan. Ori illa, ta tormentuaz guzia puskatua, ta desegiña ikusi, ta Jesusen amorioa ezagutu, ta alabatuko zuten: da Jaunaren Anima ederra an sartu, ta puntu artan bere glori az apañdurik bizirik jaiki edo erresuzitatu zan.

O Salbadore glorioso! Ordu onean zure jaikiera izan bedi. O gure esperanza guzia! Ordu onean Aingeru ta Santuakin glorifikatu nai zaitugu: bada gugatik ezin guziago ala umillatu, ill da enterratua izan ziñan. Ill bedi betiko gure soberbia, ta aizezko arrotasuna beste pekatuakin: ta zure Pasio, ta Gurutzeko umiltasun, da mortifikazioa gure biotzetara betor, zurekin orañ umillatu, ta illda zure gloriara betiko igo gaitean. Amen.

JESUS GLORIOSOA AMA SS.MARI: TA MADALENARI NOIA AGERTU ZAN

I. Pensatu, Ama Birjiña bere erretiroan, da orazioan zegoena, ta bere Semea bizirik ikusteko deseo andiakin, orra non bere aurrean da glori azko Majestade guztian jarri zitzaion: da lengo pena, luto, ta negar guziak aztuerazo ziozkan. O gloria, ta zeñ ondo merezia!

II. Pensatu, Biotz birjinal artan igoko ziran zeruko atsegiñak, ta nola Jainkoa glorifikatuko zuen. Bere sabeleko frutu bedeikatu dibinoa añ ederra ikusi zuenean, zer poz aldi esan al baño gozoagoak aren Animak sentituko zituen! Zer amoriozko bien laztan estuak!

III. Pensatu, nola goiz artan, da txit goiz, Madalena maite, pekatari penitente santari Jesus ona agertu zitzaion. Onen Gorputz Santua obian arkitu ez, da beste lagunak, eta Pedro, ta Joan obia utsa ikusi, ta andik erri- ra biurtu ziran; baña amoriozko Santa au bere guztiaren, edo Jesusen billa zebillen; da Aingeruak etorri, ta an etzegoela esanda ere, ark Jesus besterik nai etzuen. Ala deseo bizi oiekin zebillela, an bertan Jesus bere Maisu dibinoa agertu zitzaion: da bere Adiskide santu guzien artean, lenena Madalena ikusi, ta konsolatu zuen. O amoriozko deseo santu, ta persebe- ranziaren indar paregabea!



SAN PEDRORI, TA DIZIPULO BIAI JESUS AGERTU ZITZAIEN

I. Pensatu, nola S. Pedro sepulkrotik biurtu, ta orazioan jarri zan: da Resurrezioko Misterioan pensatzen zegoela, bertan bere Maisu Dibinoa gloriuz beterik zetorrela ikusi zuen. O zer fabore, ta erregalao! Nola Pedrok konfesatu, ta adoratuko zuen: amorez, ta dolorez urturik esango zion: Jauna, Zu zera Jesu Kristo, Jainko egiazkoaren Semea.

II. Pensatu, nola bere pekatuaz lotsatu, ta damuz beterik barkazioa eskatuko zion: Aldegizu, Jauna, bada ni naiz pekatari galdu bat. Baña Jesus maiteak Pedroren fede, ta amorioa ikusirik, barkazio, ta bendizioa eman, da esan zion: bere Lagunak billatu, ta Misterio onen fedean konfirma zitzala. Pedrok mandatua egin zuen, da guziak sinistu zuten.

III. Pensatu, nola goiz orretan Emausko Gastelura Dizipulo bi zijozen Jesus maitearen gañean itz egiten, ta bien lagun egin zan. Ezagutu etzuten; baña irurak ostatuan sartu, ta Jaunak maiean Komunio sagradua biai eman, da erregalatu zituen, da ezkutatu zan. Biziro Jerusalem biak biurtu, ta Jesusen faborea kontatu zuten.

APOSTOLOAI EGUN ARTAN, DA ANDIK ZORTZI EGUNERA BERAÍ, SANTO TOMAS AN ZEGOELA, JESUS BERRIZ AGERTU ZITZAIEN

I. Pensatu, nola Juduen beldurrez atek itxirik, Apostoloak beren erretiroan zeuden. Orduan Maisu dibinoa aien argaltasuna ikusirik, beren bildur artan animatzeko, Majestade, ta gloriuz beterik itxi artan sartu zan. Guzien erdian jarri ta esan zion: Pakea zuekin.

II. Pensatu, zer zeruko atsegiña artuko zuten fabore onekin Apostoloak: eta bakoitza beregan soseguz gera zedin, Jesus onak esan zion: ez bildurtu. Ni naiz. Ona nere Gorputz egiazkoa bera.

III. Pensatu, nola Santo Tomas etorri zanean beste Lagunak esan zioten, Maisu Dibinoa glorioso agertu, ta guzien erdian egon zala. Baña Tomasek esan zuen: nere begiz, da eskuz llagak ikusi artean ori sinistuko eztet. Andik zortzi egunera, ate itxietatik glorioso sartu, ta guzien aurrean jarri zan Jauna. Tomasi esan zion: Ona, Tomas nere eskuak, ona nere kostadua: ikusi ta sinistu ezazu. Santuak orduan argiturik esan zion: Nere Jauna, ta nere Jainkoa! Eta Jesus amorosoak: Ai Tomas! Zeren ikusi nazun sinistu dezu. Zorionekoak ikusi gabe, sinistu dutenak.

O Pakezko, ta amoriozko Jesus ezti guziak baño gozoagoa! Nor zure amore bizian erre, urtu, ta desegingo ezta zure kariñoazko bisira, ta berrogei egun aietako zure señale, ta erregalo miragarriak ikusi ezkerok! Gure bear baziñan bezala, gugatik, gure ondoren, gure billa beti, ta zure gloria-ra igotzeko egun oietan ibilli ziñan. Guri Apostoloetan zeruko bidea erakusteko, ainbeste bider aiei agertu, ta berakin egon ziñan: da Misterio, ta Sakramenta guziak orietan erakusi ziñituen.

O Pekatarien Salbadore bakarra! Gu animatzeko, Madalena, penitente santari aurreneko agertu ziñan: gero Pedrori: onek zure begietan ukatu bazinduen ere, zure bista amorosoarekin zeruko indarra artu, ta gu pekatari argalok zure fedean, da amorio bizian seguratzeko. Azkenik Tomasen animako lllaga zure lllaga preziosoakin sendatzera, eta onegan gure fede illa piztutzera afarilekura sartu ziñan, da guzien erdian jarri ziñan, guziok Zu ezagutu, ta amatzeko. O Jesus, nere Jauna, ta Jainkoa, zenbat zor dizugun! Baña zerekin pagatu eztegu, ezpada zure lllaga orien merituakin. Beste beñ bosteun laguni zere burua erakusi ziñien, zure bizitza berria erakusteko; ta beste askori, Zu zerura igo baño len.



BERROGEIGARREN EGUNEAN NOLA JESUS ZERURA IGO ZAN

I. Pensatu, Jauna azkeneko agertu zanean, Dizipuloi bear zuten zeruko dotrina nola eman zien, eta Olibeteko mendira igo ziteala agindu zien: da gero beren etxe jakiñean, da erretiro santuan egon ziteala, Espiritu Santua artu, ta aren amorio ta doiaz bete artean.

II. Pensatu, Mendi santu artara igo, ta gure Jesus Dizipuloetatik despeditu, ta amorio, ta kariño dibinozko bere bendizioa eman ziela: da guziak begira zeudela, ta guzien erditik, Jesus zeruko Errege, Jainkoaren Semea, bere birtutez, da bere gloriako Majestade guzian zerueetara igo-tzen ikusi zutela.

III. Pensatu, zer pena batetik, zer atsegiña bestetik Apostoloen Biotz santuak artuko zuten. An zeuden guzien artean Ama Birjiñak, bere Biotzeko Seme Dibinoa alako glorian ikusi zuenan, zer esan, zer pensatu, ta zer sentiko zuen! Aingeruak berriz zer, da nolako kantak, alabanzak, eta zeruko musika.

Zoaz ordu onean, Jauna, zoaz gure Jabea: Zoaz gure Jainko ta Erregea: Zoaz, da zure Erreinoan betiko zar zaite. Zoaz, da guzien partez menpea, ta Koroa ainbeste kostarikakoa, pelea bizian irabazia, ta Zuk ondo merezia ar ezazu. Zoaz, Jauna ta zure ondoren gure biotzak bijoaz or gora. Goazen, nere Jesus maitetsua, ta lurreko pensamentu bajuak utzirik, bizi berri santu batekin zerukoak ar ditzagun, zu beti amatzeko, ta alabatzeko glorian. Amen.

ESPIRITU SANTUAREN ETORRERA

I. Jesus gure Errege glorioso a odeien gañean ezkutatu, ta zeruan sartu zanean, Dizipulo, ta Adiskide santuak Ama Birjiñarekin Jerusalemgo Etxera biurtu ziran, da amar egun aietan erretiroan beren Ejerzizioetan, da kontenplazioan, pake santuan, zeruan bezala Espiritu Santuaren begira egon ziran.

II. Jesus maiteak agindu zien Espiritu konsolagarria egun onetan guzien gañera, ta biotzetara jatxi, ta sartu zan. Sugar bizi, ta miñgañen antzean etorri zan, guzien biotzak argitu, berotu, ta erretzeko: oiek gero mundu guztia argiz bete, ta amorez erazakitzeko. O mirarizko sugar argi, gozo, ta bizi beroak!

III. Apostoloak biotzetako ontzi ondo prestatuetan Espiritu Santuaz bete, ta gañez egin, da berengan kabitu ezin, da kanpora lasterka irten ziran: da etsaien bildurraz azturik zeruko deadar biziakin. Jesu Kristo Jainkoaren, Semea, onen Gurutze santua, ta gloriako Erreinoa predikatzten asi ziran. Nork esan dezake zer milagroak, ta zer konbersioak Jesusen Izen dibinoan egin zituzten! Bada millaka S. Pedrok animak erabazi zituen; Sermoi batean iru milla, bestean bost milla: eta orrela Santuak, ta beste Apostoloak mundu guzian.

O Espiritu dibino Konsolagarria! Atoz gugana: gure animak zure argi ederraz bete itzatzu, ta zure amorezko surtan erazki itzatzu. Amen.

Espiritu Santua da Jainkoa bera: berezko, izatezko, egiazko Amorea. Amorio onetan zu erazakitzeko. A. S. Ignaziok lau gauza nai ditu. Lenengo: Jainkoak egin dizkitzun benefizioak zuk ondo ezagutzea, ta zure amorio guztia obretan erakustea. Bigarrena: bere kriatura guzietan Jainkoari begiratzea: ta are geiago guztien artean nola zu bere antzera, ta bereztat egin zinduen. Irugarrena: Kriatura guzietan Jainkoak nere onerako egiten dituen mirariak ondo ezagutzea: Laugarrena: nola Jaunaren poderio, jakindea, ontasuna, ta beste birtuteak beragandik, da berak dakien neurrian gugana datozen. Benefizio oiek Jainkoaren fingabeko amorioak egiten dizkitzu: orien ezagerak zure amorioa eskatzen du; eta Santuak orazio labur au agintzen du.



AITA S. IGNAZIOREN OFRENDA, EDO ORAZIOA

Nere Jainkoa: ar ezazu nere libertade guztia. Ori osoro nere memoria, entendimentu, ta borondate guztia. Nik dedan, da ni naizan guzia, zurea da, ta Zuk eman didazu: bada dan guzia nik Zuri biurtzen dizut, da zure borondate santuak gobernatzeko agitzen dizut. Zure amorioa zure graziarekin indazu, ta orrela aberats izango naiz, eta besterik bear edo nai eztet. Zuk nai zuna baizik.

Onela, edo Amorio Dibinoaren Kontenplazioan Aita S. Ignaziok lau Asteetako bere Ejerzizioak koroatu zituen: eta guk ere aren antzera korozatzen ditugu. Lenengo Asteakoak illaren egunetako Meditazio laburretan: beste Asteetakoak, Jesu Kristoren, da Ama Birjiñaren Misterioetan eman dira. Guziak zure salbaziorako izan diteala. Ez nereak bezala zuk artu, bada nereak eztira. Diranak Jainkoarenak dira: ta ari bakarrik, beregan bezala, gugan, ta gauza guzian, da sekula guzietan betiko onra, ta gloria. Amen.